



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

VII. legegintzaldia

Iruña, 2009ko irailaren 17a

90. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### F SAILA:

##### **Galderak:**

- Galdera, zergabilketaren eta aurrekontu-finantzaketaren bilakaerari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (2. or.).
- Galdera, jakiteko ea asmorik dagoen Zangozako osasun etxeko oinarritzko osasun laguntzako zerbitzua handitzeko. Foru Diputazioaren erantzuna (4. or.).
- Galdera, jakiteko ea nork artatzen dituen larrialdiak Zangozako osasun etxeko oinarritzko osasun laguntzako zerbitzuan. Foru Diputazioaren erantzuna (4. or.).
- Galdera, jakiteko ea zergatik ez dagoen pertsianarik Zangozako osasun etxeko leihoetan. Foru Diputazioaren erantzuna (5. or.).
- Galdera, Zangozako osasun etxeko zerbitzuei eta espezializazioei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (5. or.).
- Galdera, Infanta Elena zentroaren esleipen-hartzaile berriei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (7. or.).
- Galdera, Bideko Ama Birjina Ospitaleko Larrialdiei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (8. or.).
- Galdera, Golf zelaitik eta Zuastiko bizitegi-gunetik A-15erako sarbideari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (9. or.).
- Galdera, Larraun, Arga, Queiles, Cidacos eta Alhama ibaiak leheneratu eta hobetzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (10. or.).
- Galdera, enplegu eta tokiko garapen eragileak kontratatzeke dirulaguntzei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (11. or.).

#### G SAILA:

##### **Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- Cintruénigoko Udalari eta Cascante, Cintruénigo eta Fiteroko Ur Mankomunitateari buruzko zenbait jakingarri finantzariori buruzko fiskalizazio txostena, Comptos Ganberak egina (13. or.).

---

**F saila:**  
**GALDERAK**

---

**Galdera, zergabilketaren eta aurrekontu-finantzaketaren bilakaerari buruzkoa.****FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Ion Erro Armendáriz jaunak galdera egin du zergabilketaren eta aurrekontu-finantzaketaren bilakaerari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2009ko maiatzaren 29ko 53. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2009ko ekainaren 25ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**ERANTZUNA**

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteari atxikitako foru parlamentari Ion Erro Armendáriz jaunak gal-

dera egin du diru-bilketaren bilakaerari buruz eta diru-sarreraren aurreikuspenari buruz (PES-180). Hona Ekonomia eta Ogasun kontseilariaren erantzuna.

1. 2009ko maiatzeko Nafarroako diru-bilketa fiskal metatuaren bilakaerari buruzko laburpen-etaula bat erantsi dugu. 2008ko aldi berarekiko alderaketa ere ageri da.

2. eta 3. Diru-sarrera fiskalek, hasierako aurreikuspenen aldean, izandako jokabidea jasotzen duen etala bat ere erantsi dugu. Nafarroako Gobernuak 2009ko ekitaldi osorako egindako aurreikuspena ere jaso dugu.

Iruñean, 2009ko ekainaren 22an

Bigarren lehendakariorde eta Ekonomia eta Ogasuneko kontseilaria: Álvaro Miranda Simavilla

**NAFARROAKO DIRU-BILKETA FISKALAREN EGOERA**  
**2009ko MAIATZAREN 31n (homogeneoa)**

<b>ZERGEN ARABERAKO XEHETASUNAK</b>	<b>DIRU-BILKETAN JASOTAKO ZENBATEKOA</b>	<b>2009/2008 URTEEN ARTEKO ALDEA</b>
<b>PFEZa</b>	<b>410,9 M€</b>	<b>%-5,05</b>
<b>SOZIJATEEN GAINEKO ZERGA</b>	<b>60,4 M€</b>	<b>% 8,48</b>
<b>BESTE ZERGA BATZUK (oinordetza, ondarea eta beste)</b>	<b>19,1 M€</b>	<b>% -22,6</b>
<b>ZUZENEKO ZERGA, GUZTIRA</b>	<b>490,4 M€</b>	<b>% -4,43</b>
<b>BEZa</b>	<b>251,4 M€</b>	<b>% -16,47</b>
Diru-bilketa	587,6 M€	% -9,44
Itzulketak	-336,1 M€	% -3,36
<b>ZERGA BEREZIAK</b>	<b>171,6 M€</b>	<b>% -5,44</b>
Matrikulazioen gaineko zerga	4,2 M€	% -38,54
Hidrokarburoen gaineko zerga	87,4 M€	% -11,83
Beste zerga berezi batzuk (tabakoa, elektrizitatea, alkoholak)	80,0 M€	% 6,10
<b>ESTATUAREKIKO DOIKUNTZAK</b>	<b>93,0 M€</b>	<b>% 178,84</b>
<b>ONDARE-ESKUALDAKETEN GAINEKO ZERGA</b>	<b>14,8 M€</b>	<b>% -37,59</b>
<b>EGINTZA JURIDIKOEN GAINEKO ZERGA</b>	<b>15,8 M€</b>	<b>% -16,84</b>
<b>ZEHARKAKO BESTE ZERGA BAZUK</b>	<b>18,9 M€</b>	<b>% -6,43</b>
<b>ZEHARKAKO ZERGA, GUZTIRA</b>	<b>565,7 M€</b>	<b>% -2,29</b>
<b>TASAK ETA BESTE TRIBUTU BATZUK</b>	<b>13,0 M€</b>	<b>% 6,83</b>
<b>DIRU-BILKETA LIKIDOA, GUZTIRA</b>	<b>1.069,1 M€</b>	<b>% -3,18</b>

2009ko URTE OSORAKO DIRU-SARREREN AURREIKUSPENA,  
 2009ko MAIATZAREN 31n

<b>2009ko Nafarroako Aurrekontu Orokorretako diru-bilketa fiskala</b>	<b>3.304,4 M€</b>
<b>2009rako kalkulaturako diru-bilketa, guztira</b>	<b>3.195,0 M€</b>
<b>2009ko Nafarroako Aurrekontu Orokorren ganean kalkulaturako emaitza</b>	<b>-109,4 M€</b>
<b>2009rako kalkulaturako itxiera / 2009ko Nafarroako Aurrekontu Orokorrak</b>	<b>% -3,3</b>
<b>2009rako kalkulaturako itxiera / 2008ko itxiera</b>	<b>% -1,5</b>

## **Galdera, jakiteko ea asmorik dagoen Zangozako osasun etxeko oinarrizko osasun laguntzako zerbitzua handitzeko.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Maiorga Ramírez Erro jaunak galdera egin du jakiteko ea asmorik dagoen Zangozako osasun etxeko oinarrizko osasun laguntzako zerbitzua handitzeko.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2009ko ekainaren 9ko 58. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2009ko ekainaren 29an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **ERANTZUNA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak

galdera egin du jakiteko ea asmorik dagoen Zangozako osasun etxeko oinarrizko osasun laguntzako zerbitzua handitzeko (PES-187/09). Hona hemen Osasun kontseilariaren erantzuna:

Oinarrizko osasun eskualdeetako langileen plantilla unean-unean eskualdeetako premien eta aldaketa demografikoen arabera egokitzen da.

Aurtengo maiatzaren 31n, Zangozako osasun etxeko profesionalek artatutako gaixoen batez bestekoa 1.144 da familiako sendagile bakoitzeko, eta 0 eta 14 urte bitarteko 926 haur pediatria bakoitzeko.

Hori jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2009ko ekainaren 26an

Osasun kontseilaria: María Kutz Peironcely

---

## **Galdera, jakiteko ea nork artatzen dituen larrialdiak Zangozako osasun etxeko oinarrizko osasun laguntzako zerbitzuan.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Maiorga Ramírez Erro jaunak galdera egin du jakiteko ea nork artatzen dituen larrialdiak Zangozako osasun etxeko oinarrizko osasun laguntzako zerbitzuan.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2009ko ekainaren 9ko 58. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2009ko ekainaren 29an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **ERANTZUNA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak

galdera egin du jakiteko Zangozako osasun etxeko oinarrizko osasun laguntzako zerbitzuan, nork artatzen ditu larrialdiak ordutegi arruntean (PES-188/09). Hona hemen Osasun kontseilariaren erantzuna:

Larrialdiko laguntza, arretarako ordutegi arruntean, oinarrizko osasun laguntzako profesionalek berek ematen dute. Arreta horren antolaketa osasun etxeko zuzendaritzaren menpe dago.

Arretarako ordutegi arruntean, ez dago profesional bat berriaz larrialdiko laguntzan jarduteko.

Hori jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2009ko ekainaren 26an

Osasun kontseilaria: María Kutz Peironcely

## **Galdera, jakiteko ea zergatik ez dagoen pertsianarik Zangozako osasun etxeke leihoetan.**

### **FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Maiorga Ramírez Erro jaunak galdera egin du jakiteko ea zergatik ez dagoen pertsianarik Zangozako osasun etxeke leihoetan.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2009ko ekainaren 9ko 58. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2009ko ekainaren 29an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **ERANTZUNA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak

galdera egin du jakiteko ea zergatik ez dagoen pertsianarik Zangozako osasun etxeke leihoetan (PES-189/09). Hona hemen Osasun kontseilariaren erantzuna:

Zangozako osasun etxeke egoitza guztietako leihoeak gortinak dauzkate.

Gaixoentzako itxarongeletako banda kristaldunek babes-lama batzuk badauzkate, eraikuntza obretako proiektuetan aurreikusi bezala.

Hori jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2009ko ekainaren 26an

Osasun kontseilaria: María Kutz Peironcely

## **Galdera, Zangozako osasun etxeke zerbitzuei eta espezializazioei buruzkoa.**

### **FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Maiorga Ramírez Erro jaunak galdera egin du Zangozako osasun etxeke zerbitzuei eta espezializazioei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2009ko ekainaren 9ko 58. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2009ko ekainaren 29an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **ERANTZUNA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak galdera egin du Zangozako osasun etxeke zerbitzuei eta espezializazioei buruz (PES-190/09). Hona hemen Osasun kontseilariaren erantzuna.

1.- Zangozako osasun etxeak honakoak dauzka:

Harrera arloa

Familiako medikuntzaren arloa  
Pediatriako arloa  
Larrialdi zerbitzua  
Gizarte langilea  
Albaitaritzaren arloko ikuskapena  
Errehabilitazio zerbitzua  
Obstetria eta ginekologia zerbitzuak

2.- Osasun etxeak honakoak dauzka:

Harrera eta administrazio arloa:  
Jendearentzako argibide eta laguntza gune bat.  
Historia klinikoen artxibo bat.  
Biltegi bat.

Oinarrizko osasun laguntzarako arlo bat. Honakoak dauzka:

Medikuntza orokorreko 4 kontsulta.  
Pediatriako kontsulta bat.  
Erizaintzako 5 kontsulta.  
Gizarte langilearentzako kontsulta bat.  
Kirurgia txikirako kontsulta bat.  
Erabilera anitzeko areto bat.

Osasun laguntza espezializaturako arlo bat. Honakoak dauzka:

Errehabilitazioko sendagilearentzako kontsulta bat.

Errehabilitaziorako gimnasio bat.

Sendagile ginekologoarentzako kontsulta bat.

Emaginaren kontsulta bat.

Profesionalentzako arlo pribatu bat. Honakoak dauzka:

Liburutegi bat.

Egongela bat.

Larrialdi zerbitzurako logelak.

Zuzendaritzarako bulego bat.

Instalazioetarako eta biltegirako arloa:

Prestaleku garbi bat.

Prestaleku zikin bat.

Garbiketarako gela bat.

3. 2009ko maiatzaren 31n, osasun etxeak 9.974 pertsona artatzen ditu. Horietatik, 7.585 pertsona 14 urtez gorakoak dira, eta 1.389, berriz, 0 eta 14 urte bitartekoak.

Oinarrizko osasun eskualdean honako udalak daude:

– Zangoza

– Lerga

– Zangozako Zare

– Esa

– Peña

– Eslaba

– Oibar

– Xabier

– Kaseda

– Ezporogui

– Irunberri

– Erromantzatuko Ibarra

– Galipentzu

– Leatxe

– Ledea

– Petilla de Aragón

– Urraulgoiti

– Urraulbeiti

– Induraingo kontzejua (Itzagaondoko Udalekoa)

Hori jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2009ko ekainaren 26an

Osasun kontseilaria: María Kutz Peironcely

## **Galdera, Infanta Elena zentroaren esleipen-hartzaile berriei buruzkoa.**

### **FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Ana Figueras Castellano andreak galdera egin du Infanta Elena zentroaren esleipen-hartzaile berriei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2009ko ekainaren 9ko 58. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2009ko uztailaren 1ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **ERANTZUNA**

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteko foru parlamentari Ana Figueras Castellano andreak galdera egin du Infanta Elena zentroaren kudeaketari buruz (PES 183-09). Hona Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako kontseilariaren erantzuna:

Infanta Elena Zentroa Nafarroako Gobernua-  
ren ezgaituentzako egoitza bat da. Baliabide publiko bat izanda, haren kudeaketa, arloko arau indardunei jarraituz, kontratu publiko baten bidez gauzatzen da. Araudia, gaur egun Kontratu Publikoari buruzko ekainaren 9ko 6/2006 Foru Legean jasota dago, funtsean. Araudi horrek baliabide hau kudeatzeko kontratua adjudikatzeko bideak, baldintzak eta urratsak ezartzen ditu.

Arau horietan ezarritakoaren arabera, erreferentziako kontratuaren adjudikazioak eskatzen du kontratazio espediente bat onestea. Espediente horrek jaso beharko ditu kasuko baldintza tekniko-  
en eta administratiboen orriak, bai eta ezarritako prozedura administratiboaren izapidetzea ere.

Prozedura horretako helburuetako bat lizitazio prozesuko parte-hartzea mugatzean datza, hain zuzen ere soilik behar den kaudimen teknikoak daukaten entitateak aurkez daitezten. Kaudimen tekniko hori xede horretarako onetsitako orrietan ezarritakoaren arabera egiaztatatu beharko da.

Horrenbestez, kaudimen horren abala izanen da, besteak beste, ezgaitasuna duten pertsonentzako kudeaketan edo ezgaitasuna duten pertsonen arreta-zerbitzuak ematen azken hiru urteetan izandako esperientzia.

Zehazki, aztergai dugun prozesuan, zeinean bost eskaintza aurkeztu baitira, proposamen-egileetatik lauk bakarrik egiaztatatu ahal izan zuten

eskatutako kaudimen teknikoak: Aspace, Mapfre Quahavita, Servisar eta Eulen.

Behin entitate horien kaudimen teknikoak egiaztatatu ondoren, administrazio-kontratazioari buruzko arauetan ezarritakoaren arabera eratu zen kontratazio-mahaiak, aurkeztutako proposamenen balorazio teknikoak egin zuten, prozesua arautzen zuten baldintza tekniko eta administratiboetan ezarritakoari jarraituz, eta eskaintza bakoitzari lehendik ezarritako irizpideen arabera zegokion puntuazioa eman zitzaion.

Azkenik, ekitaldi publiko batean, lizitatuzaileetako bakoitzak aurkeztutako proposamen ekonomikoak zabaldu eta irakurri ziren, hartara horietako bakoitzari emaniko puntuazioa osatuz.

Denak batuta, hau da, balorazio horiek, proiektu teknikoak eta proposamen ekonomikoak, emaitza da onartutako lizitatuzaileen lehentasunezko ordena.

Deskribatutako prozesuak helburu du kontratua adjudikatzea egindako eskaintzetatik aldekoenari, eta kasu horretan, zenbait alderdi baloratzen dira, alderdi ekonomikoaz gainera. Horren guztia-  
ren xedea da kontratua adjudikatzea kudeaketa proiektu egokiena eskaintzen duen proposamenari.

Hori esanik, kontuan hartu beharra dago aipagai dugun kontratua arautzen duten baldintza administratibo berezien orriak ez direla mugatzen kontratua adjudikatzeko kontuan hartu beharreko arauak ezartzera; izan ere, horretaz gainera, Administrazioak kontratuaren jarraipena egiteko kontuan hartu beharreko mekanismoak ere ezartzen dira, bai eta uneoro exekuzio zuzena bermatzeko mekanismoak ere.

Modu osagarrian, gogoratu beharra dago Nafarroako gizarte gaien arloko 2009rako ikuskapen planean, otsailaren 17ko 54/2009 Foru Aginduaz onetsitakoan, zentroak eta zerbitzuak gainbegiratu eta kontrolatzeari buruzko bigarren oinarriko jarduera-lerroaren barruan, sartuta dagoela gutxienez ere sei hilez behin bisitaldi bat egitea ezgaituentzako egoitzetara; horien artean, dago, besteak beste, Infanta Elena zentroa.

Bestalde, Infanta Elena zentroko langileen enpleguaren kalitateari dagokionez, argitu beharra dago hura arautzen duten baldintza administratibo-  
en orrietan –behin eta berriz aipatzen ari den horretan– aurreikusten dela enpresa adjudikazio-

hartzaileak egungo zentroko plantillak dituen kontratuetan subrogatu beharra duela; mekanismo horren bidez bermatzen da langileek beren lanpostuetan jarraituko dutela.

Azkenik, ildo beretik, gomendagarria da gogoratzea Nafarroan "Ezgaitasuna duten pertsonei laguntzeko titularitate publikoko zentro itunduen" sektorerako lan-hitzarmen kolektibo bat badagoela, eta Nafarroako Gobernua bera izan zen hura

sinatzea sustatu zuena. Hitzarmen horretan, aplikazio-esparruaren barrenean sartzen diren zentron enpleguaren kalitatea bermatzen duten baldintza batzuk ezartzen dira; besteak beste, aztergai duguna.

Iruñean, 2009ko ekainaren 28an

Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako kontseilaria: María Isabel García Malo

## **Galdera, Bideko Ama Birjina Ospitaleko Larrialdiei buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Asun Fernández de Garaialde y Lazkano andreak galdera egin du Bideko Ama Birjina Ospitaleko Larrialdiei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2009ko ekainaren 19ko 63. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2009ko uztailaren 1ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **ERANTZUNA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Asun Fernández de Garaialde andreak galdera egin du Bideko Ama Birjina Ospitaleko eta Nafarroako Ospitaleko larrialdiei buruz (PES-196/09). Hona Osasun kontseilariaren erantzuna:

1.- Osasun zentro batean guardiak antolatzea zentro horren zuzendaritzaren eskumena da.

Antolaketa desberdina da Nafarroako Ospitalean eta Bideko Ama Birjina Ospitalean, biak ospitale independenteak direlako eta ezaugarri desberdinak dituztelako.

Zerbitzu horiek antolatzeko aukerak askotariokoak dira; aukera horietako bat da guardiako buru bat izendatzea. Bideko Ama Birjina Ospitaleko kasu zehatzean, zentroko zuzendaritzak eta zerbitzu mediko eta kirurgikoek uste dute behar hori behar adina estalita dagoela harrerako guardiari-kin eta erizaintzako guardia buru batekin.

2.- Antolaketa eta ordutegi desberdinak dituzte, bata bestetik independenteak diren bi ospitaleko zerbitzu klinikoak direlako.

Ospitale bakoitzeko zerbitzu mediko eta kirurgikoen garapena desberdina izan da. Bideko Ama Birjina Ospitalea INSALUdetik transferitu zen, antolaketa jakin batekin. Nafarroako Ospitalea, berriz, Foru Diputazioarena zen, eta bere antolaketa propioa zeukan.

Bata bestetik independenteak diren ospitaleak izaki, larrialdiko zerbitzuetako antolaketa eta ordutegia modu independentean eta desberdinean kudeatzen dituzte ospitale bakoitzeko zuzendaritzak eta zerbitzuei atxikitako langileek. Soldatak lan-ordutegiaren araberrakoak dira. Logikoa denez, ordutegiak batean eta bestean desberdinak badira, soldatak ere desberdinak izanen dira.

3.- Nafarroako Ospitalean, larrialdietako sendagileek goizeko edo/eta arratsaldeko lanaldian egiten dute lan, eta gaueko orduak guardiako orduak dira. Bideko Ama Birjina Ospitalean hiru txandatan egiten da lan: goizez, arratsaldez eta gauez. Ordainsarien kontzeptua txandei dagokiena da. Horrek esan nahi du, guardiarik ez dela egiten, eta horrenbestez, ez dagoela guardiengatik libratzerik.

Bien arteko aldeak, larrialdietako zerbitzuen eta ospitale bakoitzeko zuzendaritzaren artean egindako lan akordioen ondorioak dira.

4.- Bata bestetik independenteak diren bi ospitaleren zerbitzu klinikoak dira; beraz, bakoitzaren antolaketa eta ordutegiak modu independentean eta desberdinean kudeatzen dituzte ospitale bakoitzeko zuzendaritzak eta zerbitzuei atxikitako langileek.

Hori jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2009ko ekainaren 30ean

La Consejera de Salud: María Kutz Peironcely



## **Galdera, Golf zelaitik eta Zuastiko bizitegi-gunetik A-15erako sarbideari buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Txentxo Jiménez Hervas jaunak galdera egin du Golf zelaitik eta Zuastiko bizitegi-gunetik A-15erako sarbideari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2009ko ekainaren 19ko 63. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2009ko uztailaren 2an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **ERANTZUNA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Txentxo Jiménez Hervás jaunak galdera egin du. Hona hemen Herri Lan, Garraio eta Komunikazio kontseilariaren erantzuna:

1.- Zuastiko zerbitzu gunetik AP-15 autopistarako sarbidea, Zuastiko bizitegi-gunera eta golf zelaira eta Itzako Udaleko beste herri batzuetara

sarbidea ematen duena, bateragarria da Itzako Udalak 1996ko ekainaren 6an onetsi zuen 1. Sektoreko (Zuasti) Plan Partzialarekin. Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak ere aldeko txostena eman zuen 2009ko ekainaren 6an.

Behin-behineko egoera da; izan ere, A-15era sartzen diren erabiltzaileek ez dute bidesaririk ordaintzen Zuasti-Iruñea zatian, baina horrek ez dio kalterik egiten AP-15 autopistaren emakida duen Audenasa enpresak bidesaria kobratzeko duen eskubideari.

2.- Audenasa, Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Departamentuarekin koordinatuta, beharrezkoak diren azterlanak egiten ari da, sarbide horiei behin betiko konponbidea emateko eta bidesaripostu bat jartzeko Zuastiko zerbitzugunerako sarreran.

Iruñean, 2009ko ekainaren 29an

Herri Lan, Garraio eta Komunikazio kontseilaria: Laura Alba Cuadrado

## **Galdera, Larraun, Arga, Queiles, Cidacos eta Alhama ibaiak leheneratu eta hobetzeari buruzkoa.**

### **FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du Larraun, Arga, Queiles, Cidacos eta Alhama ibaiak leheneratu eta hobetzeari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2009ko ekainaren 19ko 63. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2009ko uztailaren 2an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **ERANTZUNA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du Larraun, Arga, Queiles, Cidacos eta Alhama ibaiak leheneratu eta hobetzeari buruz (PES-95). Hona hemen Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariaren erantzuna:

Ebroko Mugape Hidrografikoko Uren Kudeaketaren arloko Gai Garrantzitsuei buruzko Behin-behineko Eskema izena daraman dokumentuan –2008ko uztailaren eman zen jakitera eta sei hilabetez jarri zen jendaurrean– honakoei buruzko argibideak ematen ziren:

a) Mugapeko ur-masen egoera, Uraren Esparru Zuzentarauko ingurumen-helburuak betetzeari dagokionez.

b) 2015ean, 2009-2015 Plan Hidrologikoa bukatzean, egoera onean egotera iritsiko diren masei buruzko aurreikuspenak eta egoera onera iristeko zalantzak daudenei edo egoera onera ez iristea espero direnei buruzko aurreikuspenak.

Ur masen egungo egoera hobetzeko, onetsiko den plan hidrologikoa neurrien programa bat aurreikusten du, non Ebroko mugapeko administrazio publiko guztiek, beren eskumenen arabera, mugapeko ibai guztietan exekutatu dituzten plan eta jarduerak batera bilduko diren.

1.- Ebroko Konfederazio Hidrografikoa bezala, Nafarroako Gobernuak ba al du asmorik Larraun, Arga, Queiles, Cidacos eta Alhama ibaiak leheneratu eta hobetzeko neurriak hartzeko?

Bai, ibai hauetan eta Nafarroako ibai guztietan eskumenen arabera dagozkion neurriak, zeinak

mugapeko plan hidrologikoa sartzen diren, ingurumen-helburuak betetze aldera.

2.- Hala baldin bada, zer neurri hartuko ditu?

a) 2006-2015 aldirako Nafarroako Foru Komunitateko Uren Kalitateari, Saneamenduari eta Arazketari buruzko Plan Nazionaleko jarduerak. Haietan, honakoak sartzen dira: hondakin-uren bederatzi araztegi zahar birmoldatzea; ekaitzetrako lau tanga egitea eta, horrenbestez, Nafarroako lurraldea fosforoarekiko lurralde sentsibletzat deklaratzeko; 10.000 biztanle-pareko hartzen dituzten hondakin uren bederatzi araztegitako tratamenduak hobetzea.

b) Berrerabiltzearen aukera, urtarrilaren 11ko 9/2008 Errege Dekretuari dagokion esparruan. Dekretua bereziki zentratuta dago 2015erako esparru-zuzentarauaren ingurumen-helburuak ez lortzea aurreikusitako azpi-arroetan eta uraren kontsumitzaile handiak diren industria-sektoretan; esate baterako, elikaduraren sektorea, edarien eta tabakoaren sektorea eta paperaren, argitalpenaren eta arte grafikoen sektorea.

Berrerabiltzearen aukerak ebaluatzeko eta Nafarroako Ingurumen Arloko Baliabideen Zentroaren bitartez, bilerak egiten ari gara Iruñean, Lizarran, Lekunberrin, Tuteran, Tafallan eta Garesen, eta bilera horietan mankomunitateek, udalek eta interesa duten industriak hartzen dute parte.

c) Ureztalurrak modernizatzeko planak, presiopeko ureztaketa sistemetarako guztizko aldaketa bultzatzen dutenak. 11.213 Ha modernizatzea aurreikusi da.

d) Kutsadura lausoaren prebentziorako zaurgarriak diren eskualdeetarako ekintza planak berraztertzea eta egunen jartzea, 15.844 Ha-tan, hain zuzen ere Nafarroako 12 herritan.

3.- Nafarroako Gobernuak orain arte ere neurriak hartu baldin baditu, zer neurri hartu ditu bost ibai horiei dagokienez?

Larraunen, azterlanaren xedea izan da nola areagotu baliabide hidrikoak eskura egotea. Parla-mentuak haren berri izan zuen.

Cidacos ibaian, abian da nitratoen ondoriozko kutsadurari buruzko azterlan bat, Gestión Ambiental-Viveros y Repoblaciones de Navarra S.A. sozietate publikoari enkargatutakoa.

Arga ibaiari dagokionez, berriki Europako proiektu bat onetsi da, WAT proiektua izenekoa, Europako Hego-ekialderako Interreg IV B programaren barruan. Hartan, hiru azterlan egingen dira (Aratzuriko arazketa hobetzea, ingurumenaren araberrak ur-emariak aplikatzea eta balizko berrerabiltzea). Proiektu horrek, zeina hasi berria baita NILSaren eta NAMAINSaren parte-hartzearekin, FEDER laguntza bat dauka.

Alhama ibaian, Ebroko Konfederazio Hidrografikoan kudeaketa batzuk egin dira, plan berriki Valdeprado-Cigudosa urtegiaren eraikuntza jaso dezan, eta etorkizunean Nafarroako Ubidearen bidez ureztatzea den eremua mugatzea, ibaiko ura har ez dadin.

Queiles ibaian, etorkizunean Nafarroako Ubidearen bidez ureztatzea den eremua mugatzea, ibaiko ura har ez dadin.

4.- Nafarroako Gobernuak ba al du asmorik Ebroko Konfederazio Hidrografikoarekin lankidetzaz hitzarmen edo protokolorik sinatzeko, Larraun, Arga, Queiles, Cidacos eta Alhama ibaiak lehene-ratze eta hobetze aldera?

Egin beharreko jarduerak Plan Hidrologikoan jasota daude, eta koordinazioa bermatuta dago Agintari Eskudunen Komitearen eta arroaz arduratzen den erakundeko gobernu batzarraren bitartez.

Hori jakinarazten dut, Parlamentuko Erregelamenduaren 192. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2009ko uztailaren 2an

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria: Begoña Sanzberro Iturriria

## **Galdera, enplegu eta tokiko garapen eragileak kontratatzeko dirulaguntzei buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du enplegu eta tokiko garapen eragileak kontratatzeko dirulaguntzei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2009ko ekainaren 19ko 63. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2009ko uztailaren 15ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **ERANTZUNA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du enplegu eta toki garapen eragileak kontratatzeko dirulaguntza % 80tik % 50era jaitsi izanari buruz (PES-206/09). Hona Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu kontseilariaren erantzuna:

Lehenik eta behin, galdera honen zioen azalpenean agertzen diren bi datu argitu nahiko nituzke, ez baitira zehatzak:

– Esaten denez, ebaluazio batzordeak igorritako aktan jasotzen da proposatutako proiektuei %

50 ordainduko zaiela, baina espediente batzuetan besterik ez da proposatzen zenbateko hori.

– Urte honetara arte dirulaguntzak % 80koak zirela ere esaten da; horri dagokionez, gogorarazi behar da 1999ko uztailaren 15eko Foru Agindua-ren 10.1 artikuluan hau ezartzen dela: “..lan arloko kostuen % 80a ordainduko da gehienez ere”. Horrenbestez, aplikatzen den ehunekoa ez da bakarra; aldiz, aldatu egiten da aztertu beharreko zenbait alderdiren arabera.

Galderari erantzuteko, komeni da zenbait zehaztapen egitea, hartutako erabakiaren oinarria baitira:

1.- Otsailaren 6ko TAS/360/2008 Aginduak araudia aldatu du eta diruz lagundu daitekeen gehienezko epea kendu du, aurreko araudiaren arabera, lau urtekoa baitzen. Horren ondorioz:

– Dirulaguntzen % 80 emanen balitz beti (luza-penak horren barne direla), entitate berak izanen lirateke beti onuradunak, eta beste entitate batzuek sekula ere ez lukete beren proiektuetarako dirulaguntzarik jasoko. Hori ez da arrazoizkoa.

– Balizko eskatzaile guztiei % 80 eman ahal izateko, Parlamentuak 2009ko aurrekontuetan

onartutakoa baino askoz handiagoko aurrekontuzuzkidura beharko litzateke.

2.- Baliabideak urriak direnez, aplikatutako irizpideekin honakoak bilatu nahi dira:

- a) Eskabide berriei sarbidea ematea.
- b) Emandako zenbatekoa diruz lagundutako urteen kopuruaren proportzioan gutxitzea.
- c) Lehentasuna ematea udalez gaindiko entitateek toki garapeneko agentziak kontratatzeari.

Horrenbestez, ezarritako irizpidea izan da 3. edo 5. urtetik aurrera diruz lagundu beharreko ehuneko pixkanaka egokitzea, eskatzailea udala nahiz udalez gaindiko entitatea izateari erreparatuta, hurrenez hurren.

Gehienetan, eta Nafarroako udalen egitura ikusita (biztanle gutxi dituzte), toki garapeneko agentziak hobeki justifikatuta daude eskualde mailan toki mailan baino. Hori dela eta, lehentasuna ematen ari gara udalez kanpoko entitateek haiek kontratatzeari.

Helburua da baliabide hori ordenatzea eta, ahal den guztian, nafar guztiengana irits dadin bideratzea. Errazagoa izanen da hori aipatutako udalez gaindiko erakundeen –partzuergoen– eskuetan utzita, udal edo udal entitate publiko bakoitzari esleitura baino; izan ere, azken kasu horretan, sekula ezin izanen lirateke eskariak gutiz ase.

Iruñean, 2009ko uztailaren 15ean

Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu kontseilaria:  
José María Roig Aldasoro

---

**G saila:**  
**TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA**

---

**Cintruénigoko Udalari eta Cascante, Cintruénigo eta Fiteroko Ur Mankomunitateari buruzko zenbait jakingarri finantzari buruzko fiskalizazio txostena, Comptos Ganberak egina.**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko martxoaren 30ean eginiko bilkuran, erabaki zuen Comptos Ganberak Cintruénigoko Udalari eta Cascante, Cintruénigo eta Fiteroko Ur Mankomunitateari buruzko zenbait jakingarri finantzari buruz egindako fiskalizazio txostena argitara dadila agintzea.

Iruñean, 2009ko martxoaren 31n

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**Cintruénigoko Udalari eta Cascante, Cintruénigo eta Fiteroko Ur Mankomunitateari buruzko zenbait jakingarri finantzari buruzko fiskalizazio txostena, Comptos Ganberak egina**

**AURKIBIDEA**

Txosten exekutiboa edo laburpena (13. or.).

- I. Sarrera (15. or.).
- II. Alderdirik garrantzitsuenen laburpena (16. or.).
- III. Helburua (18. or.).
- IV. Norainokoa eta mugak (18. or.).
  - IV.1. Norainokoa (18. or.).
  - IV.2. Mugak (20. or.).
- V. Ondorioztapena (20. or.).

Behin-behineko txostenari Cascante, Cintruénigo eta Fiteroko ur-mankomunitateko lehenakariak aurkeztutako alegazioak (29. or.).

Comptos Ganberaren erantzuna, Cascante, Cintruénigo eta Fiteroko ur-mankomunitateko lehenakariak aurkeztutako alegazioei emana (29. or.).

**TXOSTEN EXEKUTIBOA EDO LABURPENEA**

Cascante, Cintruénigo eta Fiteroko Ur Mankomunitateak eskatuta, Comptos Ganberak zenbait arlo fiskalizatu ditu, Mankomunitate horretan eta Cintruénigoko Udalean 1992tik 2008ra bitarteko ekitaldietan eginiko kudeaketa finantzarioari dagozkionak.

Mankomunitatearen eginkizuna da bera osatzen duten hiru udalerririk goi-presioko urez hornitzea; behe-presiokoaren banaketa eta kudeaketa udalerririk horiei dagokie zuzenean, mankomunitatearen esku-hartzerik gabe. Horregatik, nahikoa zaio egitura txiki bat: hala langileei dagokienez –ur-instalazio eta –hodien mantentzeaz eta zainketaz arduratzen diren bi pertsona bakarrik daukano nola administrazio-guneei dagokienez. Bere sozietate-egoitza Cintruénigoko Udaletxean bertan kokaturik dago, eta udaletxe horretako langileak dira administrazio- eta kontabilitate-kudeaketaz nahiz instalazioen mantentzeaz arduratzen direnak.

Mankomunitateak, Nafarroan tamaina txikikoak diren gainerako toki entitateak bezalaxe, postu berean biltzen ditu erakunde publiko orotan giltzarri diren idazkaritza eta kontu-hartzailetza eginkizunak; bestalde, lanpostu horrek lanaldi partziala esleituta dauka, eta zeregin horretan Cintruénigoko Udaleko idazkariak dihardu. 2007ko ekainera bitartean, Mankomunitateko Lehenakari-postua Cintruénigoko alkateak berak bete du.

Hasiera batean, eskaerak zera zuen xede, Udalaren kontabilitate ofizialean agertzen ez zen “eskudiru-kutxa” bateko mugimenduen ikuskapena egitea. Antza denez, kutxa hori 1992an hasi zen erabiltzen, eta, dirudienez, udal-lantaldeak eginiko mantentze-zerbitzuen ordain gisa mankomunitateak bideraturiko funtsetatik elikatzen zen. Mantentze-zerbitzu horien berri ez zitzaion eman udaleko kontu-hartzailetzari, eta aipaturiko zerbitzuak ez

ziren 2007ra arte kontabilizatu udalaren dirusarre-gisa.

Geroago, eta landa-lanaren emaitza gisa, Comptos Ganberak detektatu zuen bazegoela beste kontu korrante bat, mankomunitatearen izenean zegoena baina, halaber, bere kontabilitatean sartuta ez zegoena. Kontu hori 1999an ireki zen, mankomunitatearen izenean; ordezkari bakarra zeukan, hots, mankomunitateko idazkari eta kontuhartzailea, eta 2008ko ekainean itxi zen. Kontu horretan eginiko abonua nagusiak ziren Nafarroako Gobernuak mankomunitateari eginiko BEZ itzulketen ondoriozkoak. Aurkikuntza hori zela-eta –zeinaren berri bere garaian eman baitziztaion Foru Komunitateko Fiskaltza Nagusiari–, lanari hasiera batean ezarritako norainokoa zabaldu egin zen, era horretan kontu horretako mugimenduen ikuskapena ere lanaren zereginen artean sartze aldera.

Ganbera honek halaber nabarmendu nahi ditu bere fiskalizaio-lana egitean topatu dituen oztupo garrantzitsuak; alegia, ikuskaturiko ekitaldi ugari-tan kontabilitate-informazio eta –erregistrorik ez egotea, eta ikertutako gorabeheren izaerak berak erakarrirakoak, zeren eta, logikoa denez, ez baitute auditoriarako arrastorik uzten. Horregatik, jarraian zehazturiko zenbatekoak interpretatu behar dira aplikaturiko lan-hipotesiei jarraituz, zeinak txostenaren muinean deskribatzen baitira.

Eginiko ondorioztapen garrantzitsuenak honela laburbil daitezke:

Erakundea	Jatorria	Zenbatekoa (eurotan)
Cintruñigoko Udala	Eskudiru-kutxa	34.289,55
Ur Mankomunitatea	BBVA banku-kontua	157.733,41
<b>Guztira</b>		<b>192.022,96</b>

Behin-behineko txostena prestaketa-fasean zegoenean, mankomunitateko lehendakariak jakinarazi digu ezen, 2009ko martxoaren 12an, erakunde horretako idazkari eta kontuhartzaileak mankomunitate horren banku-kontuan 157.934,37 euroko kopurua sartu duela, “itzulketa” kontzeptuan.

• BEZ itzulketak. 1992tik 2008ra bitarteko epean, Foru Ogasunak mankomunitateari guztira 427.968,97<sup>(1)</sup> euroko kopurua itzuli dio BEZaren-

• 1992tik 2007ra bitartean, udal-lantaldeak eginiko lanak direla-eta, mankomunitateak udalari guztira 57.323,32 euro ordaindu ahal izan dizkio. Zenbateko hori ez da udal-kontabilitatean agertzen. Kopuru horretatik, eta, betiere, udaleko langile horiek aparteko orduengatik dauzkaten ordain-sariak –4.883,77 eurokoak izan litezkeenak– deskontatu ondoren, udalaren “eskudiru-kutxara” 52.439,55 euro bideratu dira, gure kalkuluen arabera. Bideraturiko kopuru horrekin ustez ordaindu dira kontabilizatu gabeko zenbait faktura, halako zerbitzuei zegozkienak non ganbera honek zalan-tza larriak baitaizka haiek egiazki eman ote ziren. Gerakin edo amaierako saldo gisa, 18.150 euro daude, eskudirutan. Beraz, 34.289,55 euroren nondik norakoa edo aplikazioa zein izan den ez dakigu.

• Mankomunitatearen izenean BBVAn irekitako eta bere kontabilitatean jaso gabeko kontuak, mugimenduak justifikatu gabe dituen horrek, 217.071,75 euroko dirusarrerak izan ditu 1999tik 2008ra bitartean. Dirusarrera horiek, gehienbat, Nafarroako Gobernuak mankomunitateari eginiko BEZ itzulketetatik datoz. Zenbateko horretatik, ezaguna da 59.338,34 euroren aplikazioa. Kopuru hori mankomunitatearen banku-kontu ofizialera itzuli zen, BEZaren kontabilitate-erregistroak berdinkatze aldera. Gainerakoari (hots, 157.733,41 euro) dagokionez, bere nondik norakoa edo aplikazioa ez da ezaguna.

Aurreko bi atalen laburpen gisa, xede eta aplikazio ezezaguna daukaten zenbatekoak honakoak dira:

gatik. 2000ko ekitaldira arte, BEZ kopuru hori CAN auzki kutxan sartzen da; hots, mankomunitatearen kontabilitatean erregistratuta dagoen banku-kontu bakarrean. 2002ko ekitalditik aurrera, dirusarrera horiek abonatzen dira, dela zuzenean dela CANen transferentzia espresaren bitartez, BBVAko kontuan. Orokorrean, Foru Ogasunari aurkezturiko aitorpenek ez dute kontabilitate-informazioaren bermerik, eta inkoherentzia nabarmenak aurkitu dira kontabilitateko erregistroen eta BEZaren ondoriozko kopuruen artean; halaber, itzuli beha-

(1) Dirusarrera honen eta Ganbera honek kalkulaturikoaren arteko aldea datza banku-gastuak –200,96 euro– aplikatuz hartzetan edo ez hartzetan. Zenbatekoen antzekotasun horrek pentsarazten du kontu honetako mugimenduen buruzko erregistro osagarri bat egon daitekeela.

rreko BEZaren zenbatekoan kontabilitateetik at eginiko balizko datu-moldatze baten zantzu sinesgarriak atzeman dira.

Aurreko aipamenek barne-kontrolaren eta kudeaketaren ahulezia larri batzuk agerian jartzen dituzte, eta horiek, ikerturiko gertakarien izaerarekin batera, modua eman ahal izan dute indarreko araudiari lotu gabeko egintzak gerta daitezzen, nahiz eta, entitate publiko gisa, araudi hori nahitaez bete beharrekoa zaien. Orobat, horrek esan nahi du aurrekontuen, kontabilitatearen eta kudeaketa onaren alorretako printzipioak eta arauak, entitate publiko guztiek nahitaez bete beharrekoak direnak, nabarmenki urratu direla, eta ildo horretatik eratorri da funts publikoak oker kudeatzea.

Ganbera honen aburuz, bere txostenean agerian utzitako gertakariak ustezko kontabilitate-erantzukizunaren zantzuak erakusten dituzte; horrenbestez, eta indarreko legediari jarraituz, horien berri eman zaio Kontuen Auzitegiari, zeina baita gai horretan eskudun, hark zedarritu, ebaluatu eta zehatz dezan funts publikoei egin ahal izan zaien ustezko kaltea. Horrez gain, bestelako erantzukizunen zantzuak atzematen direnez, txosten hau Foru Komunitateko Fiskaltza Nagusiari eta Nafarroako Foru Ogasunari igorri zaie.

## I. SARRERA

2008ko urriaren 20an, Cascante, Cintruénigo eta Fiteroko Ur Mankomunitateko (aurrerantzean, "mankomunitatea") lehendakariak idazki bat bidalizio Comptos Ganberako lehendakariari, zeinaren bidez batzarraren erabakiaren berri ematen baitziren. Erabaki hartan, fiskalizazio-lan bat eskatzen zen, mankomunitate horretan Cintruénigoko Udaleko (aurrerantzean, "udala") langileek eta makineriak ur-azpiegituren mantentzerako eginiko lanei buruz.

Idazki hari zenbait agiri atxiki zitzaizkion: udaleko kontu-hartzailetzaren txostena, udaleko idazkariaren txostena, mankomunitateko zenbait kontabilitate-agiriren kopia, eta udaleko lan-gaztiguak. Era berean, kontabilitate ofizialaz kanpoko "eskudirukutxa" batean 2002tik 2006ra bitartean izandako diru-sarrera eta -irteeren analisi bat jasotzen da, Cintruénigoko Udaleko kontu-hartzaileak egina.

Egoera hori ere 2008ko azaroan salatu zuen Cintruénigoko alkateak Nafarroako Foru Komunitateko Fiskaltza Nagusian.

Hasiera batean, Comptos Ganberak Cintruénigoko Udala hartu zuen bere lanaren aztergai nagusi, ustezko irregulartasunak detektatu eta salatu zireneko entitateak izateagatik. Geroago, eta landa-lanaren emaitza gisa, txosten honen aztergaia zabaldu egin zen, mankomunitatearen zen-

bait jakingarri finantzarioren berrikuspena bere barrenean hartzeraino. Funtsean, jakingarri horiek dira kontabilitateaz kanpoko kontu korrante baten existentzia eta BEZaren itzulketen jarraipena.

Hasierako eskaerari eta geroago gehitutakoari baieztoko erantzuna ematearren, Comptos Ganberak 2009rako onetsitako jarduketaprograman sartu zen udalaren eta mankomunitatearen zenbait jakingarri finantzariori buruzko fiskalizazioa.

Lan honetan detektaturiko gertakarien garrantziak Comptos Ganbera behartu du fiskalizazio-txostena presako izaerarekin prestatzera, nahiz eta, atzemandako informazio-gabezia dela-eta, muga handiak izan dituen. Betiere, helburua da organo eskudunek erabaki egokiak har ditzatela.

Mankomunitateari eta udalari aplikatzekoa den araubide juridikoa, funtsean, honako hauek osatzen dute:

- Nafarroako Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legea.
- Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legea.
- Nafarroako Toki Araubidea Gaurkotzeari buruzko 11/2004 Foru Legea.
- Toki Araubidearen Oinarriak Arautzeko 7/1985 Legea.
- Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutua.
- Kontabilitatearen eta aurrekontuen arloan, araubide juridikoa ezartzen dutenak 1998ko irailaren 21eko 270, 271 eta 272 foru dekretuak dira, zeinak Nafarroako Toki Administrazio-rako aurrekontu eta gastu publikoari, aurrekontu-egiturari eta kontabilitateari buruzkoak baitira.

2008ko azaroan ekin zitzaizen aurretiazko lanei; landa-lana bera 2009ko urtarrilean eta otsailean egin zuen auditore batek eta auditoretzako bi teknikaririk osaturiko lan-talde batek. Era berean, Comptos Ganberaren zerbitzu juridikoen, informatikoen eta administratiboaren laguntza izan dugu.

Txostenak bost atal ditu, sarrera hau barne. Bigarren atalean, atzemandako gorabeheren laburpen bat eskaintzen da: hirugarren eta laugarren ataletan adierazten dira eginiko lanaren helburuak, bai eta norainokoa eta mugak ere. Azkenik, bosgarren atalean adierazten dira gorabehera horiei buruzko ondorioztapenak.

Eskerrak eman nahi dizkiegu mankomunitateko, udaleko eta Nafarroako Gobernuo langileei, lan hau egiteko eman diguten laguntzarengatik.

## II. ALDERDIRIK GARRANTZITSUENEN LABURPENA

Jasotako dokumentazioa aztertu eta landa-lana egin ondoren, txostenaren helburuari dagokionez garrantzitsuenak diren alderdiak honela laburbil daitezke:

- Mankomunitatea da Cascante, Cintruénigo eta Fiteroko udalak goi-presioko urez hornitze aldera eraturiko toki entitate bat. Behe-presioko hornidura udalei dagokie.

- 2007ko ekainera arte, mankomunitatearen lehendakaritza zeukan Cintruénigoko alkateak berak; harrezkero, aipaturiko udaleko lehen alkate-ordeak hartu du bere gain lehendakaritza.

- Mankomunitateko idazkari eta kontu-hartzaile postua dauka Cintruénigoko Udaleko idazkariak.

- Mankomunitateak ez dauka egoitza berekirik, ez eta bere kudeaketa ekonomiko eta finantzario-rako langile berekirik ere; kudeaketa hori udalaren bulegoetan egiten da, udalaren beraren langileekin. Bere langileria soil-soilik mantentze-lanerako bi langilek osatzen dute.

- Mankomunitateak Cintruénigoko Udaleko langileak eta makineria erabiltzen ditu goi-presioko uraren hornidurarako sarearen eta hornidura-baltzen mantentze-lanerako eta konponketa txikietarako.

- Lan horien berri ematen zen udaleko lantaldetako buruak eginiko "lan-gaztigu" batzuetan. Bertan, xehakaturik agertzen ziren, batetik, aplikaturiko gizon-orduak –arruntak nahiz apartekoak–, eta, bestetik, erabiltzeko makina-orduak eta lanabes txikien erosketak.

- Gaztigu horiek, 2006ra arte, ez ziren izapidetzen, ez eta udaleko kontu-hartzailetzara igortzen ere, ez eta "kobratu beharreko dirusarrera" gisa udaleko kontabilitatean erregistratzen ere. Beraz, udaleko kontu orokorretan ez dira sartzen dirusarrera-kontusail gisa, eta, horrenbestez, haien gaineko kontrola, bai barnekoa bai kanpotikoa, eragotzi egiten da.

- Gaztigu horiek mankomunitateari igortzen zaizkio, gero izapidetu, kontabilitate eta aurrekontuetan erregistratzeko eta ordaintzeko. Mankomunitateak, kasuko kontabilitate-agiriaren bitartez, gaztigu horiek irizpide honi jarraituz kontabilizatzen ditu:

- 1992tik 2005era bitarteko aldia: egiaztapena egin ahal izan den urteetan, gastuen aurrekontuko 1. kapituluari egozten zaizkio, behin-behineko langileen kontzeptuaren barruan.

- 2006ko ekitaldia: gastuen aurrekontuko 2. kapituluari egozten zaizkio, "instalazioak eta mantentzea" kontzeptuaren barruan.

- 2007ko ekitaldia: gastuen aurrekontuko 1. eta 2. kapituluari egozten zaizkie, bataren eta bestearen artean bereizketarik egin gabe.

- Aurreko gaztiguaren ordainketa egiteko, mankomunitateak eramailearentzako taloi bana egiten du, Nafarroako Aurrezki Kutxarena –kontabilitatean agertzen den kontu korronte bakarra–, haietako bakoitzaren guztizko zenbatekoa duena. Egiaztatu ahal izan ditugun kasuetan, taloi hori sinatzen dute mankomunitateko lehendakariak (garai hartan, udaleko alkateak) eta mankomunitateko idazkari eta kontu-hartzaile denak (garai hartan, udaleko idazkariak).

- 1992ko urtarrilaren 27an, eta ganbera honek daukan konpultsatu gabeko fotokopia baten arabera –horren originala ez da udal artxiboetan agertzen–, garai hartan Cintruénigoko alkate zen horrek udaleko idazkariari "agindu" zion honela jokatu behar zela taloi horiekin:

"Mankomunitateak abonaturiko fakturaren guztizkotik, jarduneko langileek eginiko aparteko orduak ordainduko dira. Gainerakoa, udal bulegoetako segurtasun-kutxan gordeko da, alkate honek zehaztuko dituen aparteko gastuei aurre egiteko.

Jakinarazpen honi buruz edozein zalantza izanez gero, atseginez argituko dizut zuzenean; horrekin batera, gai honi buruz diskreziorik handiena exijitzen dizut."

- Ohar horiei jarraituz, mankomunitateak egini-ko eramailearentzako taloia, Nafarroako Aurrezki Kutxarena, dirudienez zuzenean kobratu zen, eta langileei aparteko orduak ordaindu ondoren, gainerakoa udaletzeko segurtasun-kutxan gorde zen.

- Badirudi langileen aparteko orduak eskudirutan ordaindu zituela udalak. Ordainketa horiei dagozkien jaso-agiriak ez dira inon aurkitu.

- Diru-soberakinarekin, zenbait ordainketa egiten dira, 2008ko ekainaren 11n udal-idazkariak eginiko txostenean "aurrekonturatze zaileko" gastutzat jotzen direnak.

- Jokabide horri eutsi ahal izan zaio 1992tik 2006aren amaiera aldera arte. Udaleko kontu-hartzaileak prozedura hori detektatu dueneko txostenaren arabera –2008ko ekainaren 9ko txostena–, aipaturiko prozedura 2007an bukatu zen; harrezkero, mankomunitateak udalaren aldeko banku-transferentzia bitartez ekin zion aurkezturiko gaztiguak ordaintzeari. Dena dela, eta gero azalduko dugunez, 2007ko lehenbiziko hiru hilekoan ere



detektatu dira prozedura horren bidezko ordainketak.

- 2008ko abenduaren 22an, ganbera honek udaleko idazkariaren idazki bat jaso zuen, zeinaren bitartez helarazten baitziren “eskudiru-kutxa” horretatik ordainduriko zazpi fakturen kopiak; guztira, 13.545,26 euroko zenbatekoa egiten dute. Guztiak 2002tik 2006ra bitarteko epekoak dira; haietako sei udalaren izenean eginak daude, eta beste bat, mankomunitatearen izenean. Kontzeptuak sailkatuta, honakoengatik dira:

- Eguberrietako opariak eta bazkaria, 1.146 euro.
- Bideo-sistema bat erostea, 2.381,63 euro.
- Segurtasun-enpresen zerbitzuak, 2.387,63 euro.
- Enpresa-aholkularitzako zerbitzuak, 7.250 euro.
- Ahalmen ekonomikorik gabeko pertsona batentzako laguntzak, 380 euro.

- Ganbera honek jasotako dokumentuen artean dago, halaber, aipaturiko kontzeptuengatik mankomunitateak udalari eginiko ordainketa “teorikoen” zerrenda bat. Zerrenda hori elkarrekin batera egin zuten mankomunitateko lehendakariak eta udaleko kontu-hartzaileak, udalean artxibaturiko mankomunitatearen kontu orokorrak abiapuntu gisa harturik. Barnean hartzen du 2002ko urtarrilaren 4tik 2006ko abenduaren 29rainoko epea. Laburbildurik, hona hemen bere xehakapena:

Mankomunitateak ordaindutako gastuak, guztira: 31.761,86 euro. Zenbateko horretatik, eta txosten honen ondorioetarako, udalaren kontura zuzenean banku-transferentzia bitartez eginiko bi ordainketa deduzitu behar dira, 2006ko urrian eta abenduan eginikoak, eta guztira 2.625 euro egiten dutenak. Beraz, aztertutako prozeduraren bitartez 2002tik 2006ra bitarteko epean ordaindutako zenbatekoa, aipaturiko txostenaren arabera, 29.136,86 eurokoa litzateke, honela xehakatuta:

- Udaleko langileek jasotakoa. Guztira, 2.406,73 euro.
- Helmuga ezezaguneko kopurua. Guztira, 26.730,13 euro.

Udaleko idazkariaren txosten jadanik aipatuen arabera, “eskudiru-kutxa” 18.150 euro agertzen dira guztira. Beraz, “teorikoki” bide horretatik ordainduak lirateke 8.580,13 euro egiten duten gastuak. Hala ere, udaleko idazkariak ganbera honi igorritako faktura-kopiek 13.545,26 euroko zenbatekoa egiten dute. Alde hori esplikatu ahalko

litzateke kutxa horretan 2002 baino lehenagoko eragiketetatik eratorritako funtsak egoteagatik, beste zergati batzuk ere posible diren arren.

- 2008ko abenduaren 18an, eta gure oharrei jarraituz, udaleko idazkariak udal-kontu batean sartu zuen aipaturiko zenbatekoa, 18.150 eurokoa; geroago, eta Fiskaltzak adierazitakoa betez, kopuru hori lekualdatu zen judizialki blokeaturiko kontu batera.

Mankomunitatearen eskaerak azaltzen zuen egoerari buruzko dokumentazioa aztertzeko prozesuan, eta ganbera honen landa-lanaren emaitza modura, mankomunitatearen kontabilitatean sartuta ez zegoen kontu korrante bat bazegoela detektatu zen. Kontu horren ezaugarriak hauek ziren:

- Entitatea: Banco Bilbao Vizcaya Argentaria (BBVA).

- Titularra: Cascante, Fitero eta Cintruénigoko ur-mankomunitatea.

- Ordezkarri bakarra: bertako idazkari eta kontuhartzailea.

- Irekitze-eguna: 1999ko urtarrilaren 15a. Jatorri ezezaguneko transferentzia baten bidez ireki zen, 23.012,01 eurokoa.

- Ixte-eguna: 2008ko ekainaren 10a. Itxi eta saldatu egiten da 12.895,03 euroko banku-txeke baten bitartez, zeinaren onuraduna ezezaguna baita.

Banketxeari kasuko frogagiriak eskatu ondoren, honako hau da mugimenduen laburpena:

A. Dirusarrerak: Dirusarreren guztizkoa 217.071,75 eurokoa da, eta honela xehakatzen da:

- Nafarroako Gobernuak zuzenean abonaturiko BEZ itzulketak, 2003tik 2005era bitarteko eta 2008ko kontabilitate-aurrekontuei dagozkienak, eta guztira 78.523,06 euroko zenbatekoa egiten dutenak.

- Nafarroako Gobernuak hasiera batean Nafarroako Aurrezki Kutxa abonaturiko BEZ itzulketak, baina geroago BBVAko kontu horretara transferitu direnak. Itzulketa horiek, 2002, 2006 eta 2007ko kontabilitate-ekitaldiei dagozkienak, 82.440,50 euro egiten dute guztira.

- Mankomunitatearen fakturen ordainketa kontzeptuan Nafarroako Aurrezki Kutxako kontutik eginiko transferentziak, 11.112,95 euro.

- Mankomunitatearen Nafarroako Aurrezki Kutxako kontuan txeke arrunt bat sartzea, 3.256,20 eurokoa.

- Identifikatu gabeko kontuetatik eginiko transferentziak, 29.720,13 eurokoak.

- Identifikatu gabeko kontu bateko txeke arrunt baten bitartez 11.866,22 euroko dirusarrera egitea.

- Euro-bihurketa, hartzekoduna, 79,60 euro.

- Bestelako dirusarrerak, 73,10 euro, gehienbat interesei dagozkienak.

B. Gastuak. Guztizko zenbatekoa 217.071,75 eurokoa da, eta honela xehakatzen da:

- Txeke arrunten bitartezko karguak, 139.840,06 eurokoak (haien aplikazioa ezezaguna da).

- Mankomunitatearen Nafarroako Aurrezki Kutxako kontura eginiko transferentziak, 59.137,38 eurokoak. Haietako bat "Nafarroako Gobernu" kontzeptuan egina da; gainerakoak, "Ur Mankomunitatea" izendapen orokorrekina.

- Identifikatu gabeko kontu batera eginiko transferentzia, 3.608,32 eurokoa.

- Kontutik dirua eskudirutan ateratzea, 1.390,00 euro (onuradun ezezaguna).

- Banku-txekea kontua ixtean, 12.895,03 euro (onuradun ezezaguna).

- Euro-bihurketa, zorduna, 79,60 euro.

- Beste gastu batzuk, gehienbat komisioak, 121,36 euro egiten dutenak.

Kontu korrante hori existitzeak berak, bai eta bertako idazpenen garrantziak ere (batez ere, BEZ itzulketei buruzkoenak), fiskalizazioaren norainokoa zabaltzera behartu zuen, detektaturiko afera horien ikuskapena ere egite aldera.

2009ko urtarrilaren 27an, eta behar ziren ondo-rioiarako, kontu hori aurkitu zela jakinarazi zien ganbera honek, ofizialki, bai mankomunitateari bai Foru Komunitateko Fiskaltza Nagusiari.

### III. HELBURUA

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeari, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeari eta Comptos Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari jarraituz, Cintruénigoko Udalaren eta Cascante, Cintruénigo eta Fiteroko Mankomunitatearen zenbait jakingarri finantzari buruzko fiskalizazioa egin dugu, 1992tik 2008ra bitarteko ekitaldiak aztertzen dituen, kontuan harturik mankomunitatearen eskaera eta hark geroago eskaera hori handitu izana.

Guk egindako lanak helburu hauek izan ditu:

I. Udaleko obra-lantaldeak eginiko mantentze-lanen ondorioz mankomunitateak udalari eginiko ordainketak zenbatestea.

II. "Eskudiru-kutxaren" diru-jarioak zehaztea (sarrerak, irteerak eta saldoa), bai eta haren kargura eginiko eragiketen legezkotasun eta egokitasunari buruzko irizpena ematea ere.

III. Mankomunitatean detektaturiko eta bere kontabilitate ofizialean sartu gabeko kontu korrontearen ezaugarriak eta funtzionamendua aztertzea eta haren finantza-jarioak eta dokumentu bidezko frogapena kuantifikatzea.

IV. Mankomunitatearen BEZ aitorten-likidazioen egokitasuna eta haiek kontabilitatearen eta diruzaintzaren ikuspegitik izandako tratamendua kontrajartzea.

V. Bi entitateen barne-kontrolerako eta kudeaketarako jardunbide orokorrak ebaluatzea, kasua bada agerian uzteko zer ahuleziak ahalbidetu duten prozedura hau.

VI. Udalaren eta mankomunitatearen kontabilitatean egin beharreko zuzenketak proposatzea, detektaturiko eragiketarako behar bezala adierazita gera daitezen eta, beraz, haien benetako ondare-goera ere bai.

## IV. NORAINOKOA ETA MUGAK

### IV.1. NORAINOKOA

Azaldutako helburuak aintzat harturik, gure lanak honako ildo hauek izan ditu ardatz nagusi:

#### A. Ur Mankomunitatea

- Eskaeraren gaiari aplikaturiko prozedura administratibo eta kontabilitatekoaren analisia, bai eta gauzaturiko kontabilitatearena eta banku-erregistroena ere.

- Lan honen helburuarekin zerikusia daukaten eta 1992tik 2007ra arte luzatuak diren kontabilitate-dokumentuen berrikuspena, honakoen analisia barne:

- Aurrekontu-egozteak eta kontabilitate-agerpena

- Sinadurak

- Justifikazioa-lan-gaztiak

- Taloiak eta haiek erregistratzea

- Banku-frogagirikin kontrajartzea

- Prozedura horri jarraituz eginiko ordainketen kuantifikazioa.

- BBVAn irekitako kontua detektatzean, hura gainbegiratzea eta bertako idazpenen justifikazioa (1999tik 2008ra arte).

- BEZaren aitorten-likidazioen jarraipen eta kontrajarpena (1992-2008)

#### B. Cintruénigoko Udala

- “Eskudiru-kutxako” erregistro osagarrien berrikuspena, kasua bada.

- “Eskudiru-kutxako” dirusarreraren eta kutxa horren kargura ordaindutako fakturen analisisa, bai eta haien arrazoizkotasunari buruzkoa ere.

- Lan honen aztergaiari udalean aplikaturiko prozedura administratibo eta kontabilitatekoa berrikustea.

- Mankomunitateari eginiko lan-gaztiguaren analisia.

- Udalak jaso beharreko balizko dirusarreraren kuantifikazioa.

- Prozedura horretatik erator litezkeen balizko gorabehera fiskalen analisisa.

#### C. Nafarroako Gobernua

- Ekonomia eta Ogasun Departamentuaren kontabilitate-informaziotik abiaturik, mankomunitateari zenbait kontzepturen pean eginiko ordainketak egiaztatu eta kontrajartzea; batez ere, dirulaguntzak eta BEZ itzulketak, bai eta kopuru horiek ordaindu direneko kontu korranteak ere.

- Toki Administrazioiko Departamentuari dagokionez, mankomunitateak aurkezturiko kontu orokorren laburpena aztertzea.

#### D. Ustezko erantzukizunen zantzuak egotea

Eragiketa guztien multzoaren legezketasuna berrikusteari ekinen zaio, ustezko erantzukizunen zantzurik ba ote dagoen zehazte aldera.

Ezarritako helburuak lortzeko, funtsean honako dokumentazio hau eskatu zen:

#### A. Ur Mankomunitatea

- 1992tik 2007ra bitarteko ekitaldiei dagozkien mankomunitateko kontu orokorrak.

- Kontabilitate-erregistroak, liburu osagarriak eta diruzaintzakoak.

- Aurrekontuko eta aurrekontuz kanpoko kontabilitate-dokumentuak eta haien justifikazioa.

- Nafarroako Aurrezki Kutxako kontuari dagozkion frogagiriak.

- Taloiendoak.

- BBVAko kontuaren frogagiriak eta kontu horri buruzko informazio orokorra.

- BEZaren aitorten-likidazioak.

#### B. Cintruénigoko Udala.

- Obra-lantaldearen lan-gaztiguak.

- “Eskudiru-kutxaren” kargura ordaindutako erregistroak eta fakturak.

#### C. Nafarroako Gobernua.

- Foru Ogasuna: mankomunitateak aurkezturiko BEZaren aitorten-likidazioen kopia.

- Toki Administrazioiko Departamentua: kontu orokorrekin eta aurrekontu-likidazioko espedienteekin doazen aurrekontuz kanpoko egoera-orriak.

Gure lanak hartuko duen denbora-epea –1992tik 2008ra bitarteko kontabilitate-ekitaldiak– zehazteko, kontuan hartu dira honako hiru elementu hauek:

- Cintruénigoko alkateak 1992ko urtarrilean ustez idatzitako eskutitz baten kopia bat agertu izana. Eskutitz horretan agintzen da “eskudiru-kutxaren” prozedura abian jartzea.

- Udaleko kontu-hartzailearen txostena, 2008ko ekainaren 9koa, non egiaztatzen baita ezen prozedura horrek operatiboa izateari utzi ziola 2007an.

- BBVAko kontua 1999an ireki zen, eta 2008ko ekainean itxi.

Lana gauzatu da, jarraian adierazten diren mugak gogoan izanik, Espainiako Estatuko Kanpo Kontroleko Organo Publikoak Koordinatzeko Batzordeak onetsitako eta Comptos Ganberaren fiskalizazio-eskuliburuan jasotako sektore publikoaren auditoriari buruzko printzipioei eta arauari jarraituz, eta azterlanaren helburuen eta inguruarren arabera beharrezkotzat jo ditugun hauta-proba edo prozedura tekniko guztiak bildu dira.

Txosten hau ulerterrazagoa izan dadin, zenbait guztiak eurotan agertzen dira, kontuan hartu gabe 1992tik 2001era bitarteko epean ofizialki pezetatan adieraziak egon izana.

Azkenik, komeni da gogoraraztea Comptos Ganbera honen eskumen-esparrua, indarreko legediaren arabera, foru sektore publikoko entitateen fiskalizazio ekonomiko eta finantzariora mugatzen dela, eta ez daukala eskumenik esparru horretatik kanpora pertsona fisikoek eta/edo juridikoek eginiko jarduketak ikertu edo berrikusteko.

## IV.2. MUGAK

Gure lanak izan dituen muga garrantzitsuak honako hauen ondorio dira: kontabilitate-dokumentaziorik eza, batetik, eta ikerturiko gertakarien izaera bera, bestetik; zeren eta, logikoa denez, ez baitute behar adinako frogarik uzten auditoria bat egiteko. Halatan:

### A. Ur Mankomunitatea.

- 1992tik 2001era bitarteko ekitaldietako mankomunitatearen kontu orokorren espedienteak ez dira ageri.

- 1992tik 2001era bitarteko epeari dagokionez, ez dago ez kontabilitate-dokumenturik –aurrekontukoak nahiz aurrekontuz kanpokoak– ez eta haien justifikaziorik ere.

- 1992tik 1998ra bitarteko epeari buruz, ez dago aurrekontuko edo aurrekontuz kanpoko kontabilitate-erregistorik. 1992, 1993 eta 1997tik 1999ra bitarteko libramendu-liburuak soilik agertzen dira; eta, kargu-liburuetatik, 1992, 1993 eta 1995etik 1997ra bitarteko urteei dagozkienak.

Aurreko mugapen horiek eratorriak dira, batez ere, mankomunitatearen 2001eko ekitaldira bitarteko informazio ekonomiko eta finantzarioa erauzi izatetik. Alabaina, ez da inon agertzen norik baimendu/agindu zuen horrela jokatzeari, ez eta zer justifikaziorik, edo zein egunetan erauzi zen informazioa.

- 1999tik 2006ra bitarteko epeko kontabilitate-erregistroak, informatikaren ikuspegiari dagokionez, gaur egun horretaz arduratzen den enpresak ez baizik eta beste batek eginiko programa baten bitartez egin ziren, eta, azkenik, eskueran izan dugun informazioa 1999tik 2004ra bitarteko ekitaldiei buruzkoa izan da soilik. 1999tik 2001era bitarteko hutsuneak partzialki baino ez dira gainditu.

- 2005 eta 2006ko ekitaldiei dagokienez, kasuko kontabilitate-itxiera ez dugu eskueran izan, aurrekontuko kontabilitate-dokumentuak salbu.

- Taloiondorik eza.

- BBVAko kontuko frogagiriekin informazio urria ematen dute; izan ere, eragiketaren gakoak, eguna eta zenbatekoa bakarrik aipatzen dituzte; identifikatu ahal izan diren eragiketa bakarrak dira, zenbatekoen erkapenaren bitartez, mankomunitateak Nafarroako Aurrezki Kutxan izandako kontu ofizialarekin eta Nafarroako Gobernuarekin lotura zeukatenak. BBVAren kontu horretan izandako sarturiteeri buruzko justifikazio dokumentalik ere ez da agertzen, ez eta kontu horretako erregistro osagarri buruzkorik ere.

- Informazio osatu gabea, hala mankomunitateak Foru Ogasunean aurkezturiko BEZ aitorpen-likidazioei buruz nola zerga horren kontabilitate-erregistro osagarri buruz ere.

### B. Cintruénigoko Udala

- Udaleko artxiboetan ez da agertzen Cintruénigoko alkatearen 1992ko eskutitzaren originala; hots, “eskudiru-kutxari” buruzko prozedurari (lanaren aztergaia) ekitea agertzen duena.

- “Eskudiru-kutxako” mugimenduen erregistro osagarriak eza.

- “Eskudiru-kutxa” horretan guztira sarturiko funtsak ezin izan dira zehatz-mehatz kuantifikatu.

- Ezin izan da egiaztatu “eskudiru-kutxa” horren bitartez ordaindutako bestelako fakturarik izan denik, udaleko idazkariak aurkeztuak izan ezik.

- “Eskudiru-kutxaren” amaierako saldoa bat dator udalaren kontu korrontean udaleko idazkariak egiten duen diru-sarrerarekin, eta ezin izan da egiaztatu horren egokitasuna.

- 1992tik 2001era bitarteko epeari dagokionez, ez dago obra-lantaldearen lan-gaztigurik.

- Udaleko langileei eginiko ordainketak egiaztatzeke jaso-agiririk eza.

- 2007ra arte, udaleko kontu orokorretan, kontabilitatean eta administrazio-prozeduretan ez dira jasotzen obra-lantaldeek mankomunitatearen mesedetan eginiko lanetik eratorritako dirusarrerak.

Azaldutako mugapenen multzo osoak, eta, horiekin batera, ikertutako gertakarien izaerak berak eta ganbera honi bere eskumen-esparrutik kanpoko jarduketak fiskalizatzea ezinezkoa izateak, horrek guztiak hein handian mugatu du ezarritako helburuen erdiespena.

## V. ONDORIOZTAPENA

Eginiko lanaren norainokoa eta mugapenak aintzat harturik, honakoak dira ateratako ondorioztapenak:

**I. Helburua.** Udaleko obra-lantaldeak eginiko mantentze-lanen ondorioz mankomunitateak udalari eginiko ordainketak zenbatestea.

### 1. Mankomunitateak udalari eginiko ordainketak zenbatestea.

Zenbatespen hori zehazteko edo ordainketa horien guztizko zenbatekoari hurbilketa bat egiteko, aztertutako denbora-tartea bi epetan zatitu da, eskueran dagoen kontabilitate-informazioaren arabera:

2002tik 2007ra bitarteko ekitaldiak

Epe honetan, zeinean kontabilitateko euskarri dokumentalak eta lan-gaztiguak eskueran izan baikenituen, udaleko obra-lantaldeak mankomunitatearen mesedetan eginiko lanen truke eginiko

ordainketen guztizko zenbatekoa 30.852,38 eurokoa da. Zenbateko horretatik, aparteko orduengatik guztira 2.628,45 euro legezkieke udaleko langileei, eta gainerakoa -28.223,93 euro- ustez "eskudiru-kutxara" bideratu zen. Honako koadroan adierazten dira xehetasunak, ekitaldiz ekitaldi.

Ekitaldia	Libramenduen zenbatekoa, lan-gaztigua dagoenean	Udaleko langileen aparteko orduen ondoriozko zenbatekoa	"Eskudiru-kutxara" bideraturikoaren zenbatekoa
2002	5.170,43	707,27	4.463,16
2003	11.698,58	1.182,43	10.516,15
2004	2.127,84	182,41	1.945,43
2005	6.882,81	199,86	6.682,95
2006	4.234,80	220,48	4.014,32
2007	737,92	136,00	601,92
<b>Guztira</b>	<b>30.852,38</b>	<b>2.628,45</b>	<b>28.223,93</b>

1992tik 2001era bitarteko ekitaldiak

Nahiz eta ez diren agertu kasuan kasuko kontabilitate-dokumentu eta lan-gaztiguak, eskueran dauden data-liburuak eta Toki Administrazioako Departamentuari igorritako mankomunitatearen kontu orokorretatik lortzen den aurrekontu-informaziotik, eta beste ekitaldi batzuetako kontabilitate-sistematika berbera aplikatuz, nolabaiteko fidagarritasunez hurbil gatzazkioke mankomunitateak epe horretan egin zituen ordainketei, zeinak, gutxienez ere, 26.470,94 eurokoak izan baitziren. Ezin izan dugu zehaztu udaleko langileei, kasua bada, ordaindutako zenbatekoa; dena dela, aurreko epean zenbateko horrek zer ehuneko egiten zuen -ehuneko 8,52- kontuan hartu eta aplikatzen badugu, haiei ordaindutako zenbatekoa 2.255,32 eurokoa izan liteke; horrenbestez, "eskudiru-kutxara" bideraturiko funtsek, guztira, 24.215,62 euro egin ahalko lukete.

Laburbildurik, 1992tik 2007ra bitartean, eta erabili diren hipotesiak kontuan harturik, kalkulua da mankomunitateak obra-lantaldearen lanengatik udalari ordaindu ahal izan dizkiola guztira 57.323,32 euro. Zenbateko horretatik, udaleko langileen aparteko orduak ordaintzera 4.883,77 euro bideratuko ziren. Ondorioz, "eskudiru-kutxara" eginiko diru-biderapena 52.439,55 eurorainokoa izan liteke, udalaren beraren kaltetan.

**2. Udalaren dirusarrerak eta kobrantzak**

2006ko ekitaldiaren bukaerara arte, ez da udalaren kontabilitatean inolako dirusarrera edo kobrantzarik agertzen kontzeptu horretan. Aurreko ondorioztapenari heldurik, 1992tik 2007ra bitartean, zenbateko hori 57.323,32 eurokoa izan zen.

**3. Emandako zerbitzuen balio erantsiaren gaineko zerga.**

Lan-gaztigueta aipaturiko zenbatekoei -zeinak aztertu eta, teorikoki, fakturatu egin baitira- udalak ez die kargatu zerbitzu-emateari dagokion BEZa. Fakturatu gabeko BEZak, ehuneko 16ko karga-tasan, 9.171,73 euroko zenbatekoa egiten du.

**4. Udaleko langileei aparteko lanorduak ordaintzea.**

Udaleko kontabilitate-erregistroetan ez da agertzen bertako langileek 2006ra arte mankomunitatearentzat eginiko lanen ondorioz aparteko orduengatik jasotako kopurua, ez eta kasuko jasoagiriak ere. Horrek guztiak, aplikaturiko hipotesiei jarraituz, 4.883,77 euroko kopurua egin ahalko luke. Halaber, ez da jasota utzi ea ordu horiek, aginduta dagoen bezala, Gizarte Segurantzari kotizatu ote zitzaizkion, eta dagokien PFEZ atxiki-pena aplikatu ote zitzaien.

**II. Helburua.** "Eskudiru-kutxaren" diru-jarioak zehaztea (sarrerak, irteerak eta saldoa), bai eta haren kargura eginiko eragiketen legezotasun eta egokitasunari buruzko irizpena ematea ere.

**5. "Eskudiru-kutxaren" amaierako saldoa.**

Udaleko idazkariak 2008ko ekainean egindako txosten baten arabera, saldo hori 18.150 eurokoa da. Ezin izan da horren egokitasuna egiaztatu. Zenbateko hori banketxe bateko kontu blokeatu batean sartua izan da, ganbera honek eta Fiskaltza Nagusiak emandako jarraibideak beterik.

## 6. Ordaindutako fakturak.

Udaleko idazkariak bidalitako dokumentazioaren arabera, “eskudiru-kutxa” horren bitartez eginitako ordainketak zazpi fakturaren kopiei dagozkie, guztira 13.545,26 euro egiten dutenak.

Faktura horiei buruz, honako zehaztapen hauek egitea komeni da:

- Guztiak 2002tik 2006ra bitarteko epeari buruzkoak dira, eta deigarri deritzogu lehenagoko fakturarik ez egoteari, nahiz eta “eskudiru-kutxa” hori, teorikoki behintzat, 1992an hasitakoa izan.

- Haietan azaltzen diren eragiketen izaerak, gure ustez, mankomunitatearen edo udaletxearen gastu-aurrekontuetan aurkitu ahalko zuen bere tokia. Ez da onargarria, beraz, haien izapidetzea eta ordainketa egin izana ezarritako administrazio-prozeduretatik at.

- Ez udaleko ez mankomunitateko kontabilitatean ez da agertzen berariaz eta zehazki erregistratuak izan direnik.

- Fakturak, izenez behintzat, gehien-gehienak udalari eginitako prestazioei dagozkie –sei, guztira–, baina haietako bat mankomunitatearen izenean dago (Eguberrietako bi opari-sortaren erosketa, 468 euroan).

- Faktura horietako bakar batek ere ez dauka kasuko oniritzi edo baimenik, edo, beharrezkoa denetan, zerbitzu-emate horiek oinarritu ahal izateko txostenik.

- Ganbera honek detektatu du ezen udalaren izenean dauden fakturretako bat, segurtasun-zerbitzuen ondoriozkoa eta 926,03 eurokoa, mankomunitateak Nafarroako Aurrezki Kutxan daukan kontu ofizialaren bitartez ordaindu zela.

- Bideo-zaintzako sistema baten erosketa dela eta udalaren izenean dagoen 2.381,63 euroko faktura bati dagokionez, kontu-hartzailearekin lankidetzan honako jakingarri hauek atzeman dira:

– Udal kontabilitatean erregistratuta eta ordainduta agertzen da hornitzaile, zenbaki eta data bereko faktura bat, baina 2.466,66 euroko zenbatekoa duena; alegia, 85,03 euroko aldea.

– Udalean erregistraturiko fakturak lau albaranen aipamena egiten du; “eskudiru-kutxakoak” albaran horietako bakar baten erreferentzia jasozten du.

– Bi fakturak erkatuz, honakoa ikusten da: “eskudiru-kutxatik” ordaindutakoa bat dator, bere xehetasunetan eta zenbatekoan, udalean erregistratuarekin; alde bakarra da “egindako lanak” kontzeptuari dagokiona; izan ere, “eskudiru-kutxakoan” kopurua eta aleko prezioa ez dira elkarrekin biderkatuta agertzen, eta, besterik gabe, zenbateko gisa azken prezio hori, alekoa, agertzen du. Horrek esplikatzeko du bi fakturen arteko 85,03 euroko aldea.

- Udalaren izenean dagoen eta enpresa-aholkularitzako zerbitzuei buruzkoa den 7.250 euroko faktura bati dagokionez, Cintruénigoko alkateak adierazi digu ezen, bere ikerketen arabera, faktura hori ez dagokiola udalarentzat emandako inolako zerbitzuri.

- Udalaren izenean dagoen beste faktura bati buruz (1.461, 60 euroko zenbatekoa du, eta orobat segurtasun-zerbitzuei buruzkoa da) esan behar da arrazoizko zalantzak daudela faktura hori egin duen enpresaren existentziari buruz.

Aurreko iruzkinak zalantzan jartzen dute “eskudiru-kutxaren” bide horretatik ordaindutako zerbitzu horiek egiazki emandakoak ote diren; beraz, jurisdikzio-organo eskuduna izanen da egiazkotasun hori ebatziko duena, behar izanez gero.

Ez dago informazio gehiagorik beste faktura batzuei edo “eskudiru-kutxa” horretatik dirua irtetari buruz.

## 7. “Eskudiru-kutxaren” sartu-ateratzeen laburpena.

Laburbilduta, eta aurreko iruzkinak eta hipotesiak aintzat harturik, aplikazio edo helmuga ezezagunekoak diren “eskudiru-kutxako” funtsen zenbatekoa zehazteko hurbilketa-ahalegin bat azaltzen da ondoko taulan. Zenbateko hori, guztira, 34.289,55 eurokoa litzateke, honela xehakaturik:

“Eskudiru-kutxako” funtsak	Zenbatekoa
1992-2001 aldiko sarreren estimazioa	24.215,62
2002-2007 aldiko sarrerak	28.223,93
SARRERAK, GUZTIRA (1)	52.439,55
- Amaierako saldoa	-18.150,00
<b>FUNTSEN APLIKAZIO EZEZAGUNA</b>	<b>34.289,55</b>

(1) Ikus 1. ondorioztapena.

“Eskudiru-kutsa” honetako eragiketen multzoa Foru Komunitateko Fiskaltza Nagusiak ikertu du, eta hark bere lanak organo jurisdikzional eskudunari igorri dizkio.

**III. Helburua.** Detektaturiko eta mankomunitatearen kontabilitate ofizialean sartu gabeko kontu korrontearen ezaugarriak eta funtzionamendua aztertzea eta haren finantza-jarioak eta dokumentu bidezko frogapena kuantifikatzea.

### 8. BBVAn irekitako kontu korrontearen izaera.

Comptos Ganberak kontu hori detektatu zuen Nafarroako Gobernuak mankomunitateari eginiko ordainketen kontrajarpena eginez. Kontu horretako funtsen baimena, helburua, justifikazioa eta norakoa ez dira adierazten; era berean, kontabilitateak ez du horien berri ematen diruzaintzako xehetasunei buruz aritzean, eta mankomunitatearen kontu orokorretan ere ez da aipamenik egiten. Jatorri

ezezaguneko eta 23.012,01 euroko banku-transferentzia baten bidez ireki zen, 1999ko urtarrilaren 15ean.

### 9. Kontua ixtea.

Kontu hori itxi zeneko eguna, 2008ko ekainaren 10a, honako bi hauen artean kokatzen da denboran: obra-lantaldeak mankomunitatearentzat eginiko lanengatik udalean dirusarrerarik izan ez zela detektatu zuen txostena, 2008ko ekainaren 9koa, udaleko kontu-hartzaileak egina, eta bestetik, mankomunitateko idazkari eta kontu-hartzailearen txostena, “eskudiru-kutxaren” funtzionamendua esplikatzeko zuena, 2008ko ekainaren 11koa. 12.895,03 euroko banku-txeke baten bitartez itxi zen, zeinaren onuraduna ezezaguna baita.

### 10. Kontuan izandako dirusarrerak.

Kontuan izandako dirusarrerak, 217.071,75 euro, jatorri hau daukate:

Kontzeptua	Zenbatekoa	%
BEZ itzulketak (1)	78.523,06	36
BEZ itzulketa, Nafarroako Aurrezki Kutxako kontutik eginiko transferentzia bidez (1)	82.440,50	38
Nafarroako Aurrezki Kutxako kontutik faktura tarteko helduriko dirusarrerak (2)	11.112,95	5
Nafarroako Aurrezki Kutxako txeke bitartez izandako dirusarrera	3.256,20	2
Identifikatu gabeko kontuetatik eginiko dirusarrerak	41.586,35	19
Beste banku-dirusarrera batzuk	152,69	-
<b>Guztira</b>	<b>217.071,75</b>	<b>%100</b>

(1) Ikus 13. ondorioztapena.

(2) Mankomunitatearen kontabilitatean, ustez ordaindutako faktura gisa agertzen dira gastu-kontabilitatean.

Ikusi ahal denez, dirusarreraren ehuneko 74ren jatorria dira Nafarroako Gobernuak mankomunitateari eginiko BEZ itzulketak; ehuneko 7 dator Nafarroako Aurrezki Kutxako kontutik, eta gainerakoa (ehuneko 19) jatorria identifikatu gabe dago.

Mankomunitatean ez da aurkitzen dirusarrera horien guztien froga moduko kontabilitate-euskarriarik.

### 11. Kontuan izandako ateratzeak/gastuak

Kontuan izandako diru-ateratzeak, 217.071,75 euro, jatorri hau daukate:

Kontzeptua	Zenbatekoa	%
Abonaturiko txekeak (aplikazioa ezezaguna)	152.735,09	70
Nafarroako Aurrezki Kutxako kontura eginiko itzulketak (*)	59.137,38	27
Identifikatu gabeko kontuetara eginiko transferentziak	3.608,32	2
Itzulketak eskudirutan (onuraduna ezezaguna)	1.390,00	1
Banku-gastuak	200,96	-
<b>Guztira</b>	<b>217.071,75</b>	<b>%100</b>

(\*) Ikus 14. ondorioztapena.

Diru-ateratzeen ehuneko 27 dira Nafarroako Aurrezki Kutxako kontura eginiko itzulketak; gainerakoa, banku-gastuak salbu, justifikatu gabe dago, eta horren hartzaileak, identifikatu gabe.

Mankomunitatean ez da aurkitzen diru-ateratze horien froga moduko kontabilitate-euskarririk.

BBVAko funtsak	Zenbatekoa
SARRERAK, GUZTIRA	217.071,75
Nafarroakok Aurrezki Kutxa, itzulketak (*)	- 59.137,38
Banku-gastuak	- 200,96
APLIKAZIO IDENTIFIKATUA DAUKATEN FUNTSAK, GUZTIRA	-59.338,34
<b>APLIKAZIO EZEZAGUNEN FUNTSAK</b>	<b>157.733,41</b>

(\*) Ikus 14. ondorioztapena.

Kontu honetako mugimenduen multzoa Foru Komunitateko Fiskaltza Nagusiak ikertu du, eta hark bere lanak organo jurisdikzional eskudunari igorri dizkio.

Behin-behineko txostena prestaketa-fasean zegoenean, mankomunitateko lehendakariak jakinarazi digu ezen, 2009ko martxoaren 12an, erakunde horretako idazkari eta kontu-hartzaileak mankomunitate horren banku-kontuan 157.934,37 euroko kopurua sartu duela, "itzulketa"<sup>(2)</sup> kontzeptuan.

**IV. Helburua.** Mankomunitatearen BEZ aitopenen-likidazioen egokitasuna eta haiek kontabilitatearen eta diruzaintzaren ikuspegitik izandako tratamendua kontrajartzea.

## 12. Kontuko diruaren sartu-ateratzeen laburpena.

Laburbilduta, eta aurreko iruzkinak eta hipotesiak aintzat harturik, ondoko taulan azaltzen da aplikazio edo helmuga ezezagunekoak diren BBVAko kontuko funtsen zenbatekoa. Zenbateko hori, guztira, 157.733,41 eurokoa da.

tearen eta diruzaintzaren ikuspegitik izandako tratamendua kontrajartzea.

## 13. Foru Ogasunak mankomunitateari eginko BEZ itzulketaren zenbatekoa.

BBVAko kontua detektatzearen ondorioz, eta ikusirik bertan sartuta zeudela Foru Ogasunetik zetozen zenbait BEZ itzulketa, zerga horrekin loturik 1992-2007 aldian izandako eragiketa guztiak ikuskatu ziren.

Horrela, epe horretan, eta Nafarroako Gobernu kontabilitate-informazioaren arabera, mankomunitateak 427.968,97 euro jaso ditu BEZ itzulketa kontzeptuan, ondoko taulan adierazten den bezalaxe:

(2) Dirusarrera honen eta Ganbera honek kalkulaturikoaren arteko aldea datza banku-gastuak -200,96 euro- aplikaziotzat hartzean edo ez hartzean. Zenbatekoen antzekotasun horrek pentsarazten du kontu honetako mugimenduei buruzko erregistro osagarri bat egon daitekeela.



Kontabilitate-ekitaldia	Zergaldia	BEZ itzulketaren zenbatekoa, Nafarroako Gobernuaren arabera	Dirua sartu deneko entitatea
1993	1992	5.225,91	NAK
1994	1993	11.339,07	NAK
1995	1994	31.593,20	NAK
1996	1995	20.869,05	NAK
1997	1996	16.468,63	NAK
1998	1997	90.932,93	NAK
1999	1998	54.866,06	NAK
2000	1999	35.710,56	NAK
2001	2000	0,00	-
2002	2001	39.943,82	NAK, eta ondoren BBVAra transferitua
2003	2002	31.565,57	BBVA
2004	2003	13.269,68	BBVA
2005	2004	3.352,71	BBVA
2006	2005	16.335,73	NAK, eta ondoren BBVAra transferitua
2007	2006	26.160,95	NAK, eta ondoren BBVAra transferitua
2008	2007	30.335,10	BBVA
<b>Guztira</b>		<b>427.968,97</b>	

Ikusten denez, 2000ko kontabilitate-ekitaldira arte, itzulketa horiek sartzen ziren mankomunitateak Nafarroako Aurrezki Kutxan zeukan kontu ofizialean; 2002tik aurrera, eta hiru ekitalditan –guztizko zenbatekoa: 82.440,50 euro–, dirua kontu horretan sartzen da, baina egun batzuk geroago BBVAko kontura transferitzen da; eta, gainerako lau ekitaldietan –zenbatekoa: 78.523,06 euro–, dirua zuzenean sartzen da BBVAko kontu horretan. Azterturiko dokumentazioan ez da agertzen entitate-aldaketa horren justifikazioa edo arrazoi-keta, ez eta BBVAn eginiko eragiketen edo eginiko banku-transferentzien erregistroa ere.

Diruzaintzako liburu nagusian erregistratu gabeko banku-transferentzia horiei, NAK eta BBVAren artekoei, dagokienez, dagoen dokumentu-erreferentzia bakarra da NAKeko kontuko agiria bera; alegia:

- BEZ itzulketa, 39.943,82 eurokoa.

Ogasunaren sartzeguna: 2002ko martxoaren 5a, kontzeptu honekin: “Transferentzia, BEZ itzulketa”

BBVAra transferentziaren eguna: 2002ko martxoaren 11, kontzeptu honekin: “Transferentzia, itzulketa”

- BEZ itzulketa, 16.335,73 eurokoa.

Ogasunaren sartzeguna: 2006ko ekainaren 21a, kontzeptu honekin: “Transferentzia, Nafarroako Gobernua”

BBVAra transferentziaren eguna: 2006ko ekainaren 29a, kontzeptu honekin: “Transferentzia, BEZ itzulketa”

- BEZ itzulketa, 26.160,95 eurokoa.

Ogasunaren sartzeguna: 2007ko apirilaren 4a, kontzeptu honekin: “Transferentzia, Nafarroako Gobernua”

BBVAra transferentziaren eguna: 2007ko apirilaren 18a, kontzeptu honekin: “2006ko BEZ itzulketa”

#### **14. Ogasunak itzultako BEZaren eta mankomunitateko kontabilitate-informazioaren arteko koherentzia.**

Eskueran zegoen informazio osatugabe eta zatikatuak eragotzi egin du Foru Ogasunak itzultako kopuruen eta mankomunitateko kontabilitate-datuaren arteko egiaztatze- eta kontrajartze-lana eta koherentzia. Hala eta guztiz ere, eta zenbait muga izan baditugu ere, honako egiaztatze-prozedura hauek eraman ditugu aurrera:

- Alderaketa, Foru Ogasunari aurkezturiko –eta hark eskuratutako– aitorpenen eta mankomunitateak gure esku utzitako aitorpenen artean. Alderaketa hori honako taulan jasotzen da:

Kontabilitate-ekitaldia	Zergaldia	BEZ itzulketaren zenbatekoa	Aitorpena, Ogasuna (A)	Aitorpena, mankomunitatea (B)	Zigilatua/Ogasun eko erregistroa	Aldea (A) - (B)
1993	1992	5.225,91	5.225,91	Ez dago jasota	-	-
1994	1993	11.339,07	11.339,07	11.339,07	27.04.94	0,00
1995	1994	31.593,20	31.593,20	18.578,13	31.01.95	13.015,07
1996	1995	20.869,05	20.869,05	13.687,91	31.01.96	7.181,14
1997	1996	16.468,63	16.468,63	11.039,06	-	5.429,57
1998	1997	90.932,93	90.932,93	90.932,93	02.02.98	0,00
1999	1998	54.866,06	54.866,06	54.866,06	-	0,00
2000	1999	35.710,56	35.710,56	Ez dago jasota	-	-
2001	2000	0,00	0,00	25.635,39	04.02.01	-25.635,39
2002	2001	39.943,82	39.943,82	39.943,82	23.01.02	0,00
2003	2002	31.565,57	31.565,31	31.565,57	29.01.03	0,00
2004	2003	13.269,68	13.269,68	13.269,68	-	0,00
2005	2004	3.352,71	3.352,71	3.352,71	-	0,00
2006	2005	16.335,73	16.335,73	16.335,73	-	0,00
2007	2006	26.160,95	26.160,95	26.160,95	-	0,00
2008	2007	30.335,10	30.335,10	30.335,10	-	0,00
<b>Guztira</b>		<b>427.968,97</b>	<b>427.968,97</b>			

Ikusten denez, mankomunitateari itzulitako BEZa bat dator, osoki, Ogasuneko zerbitzuetatik lorturiko aitorpenarekin; hala eta guztiz ere, aitorpen horiek alderatzen baditugu zuzenean mankomunitateak berak ganbera honi aurkezturikoekin, alde deigarriak atzeman daitezke 1994tik 1996ra bitarteko zergaldian, bai eta 2000koan ere. Alde horien zergatia ezezaguna da.

Orobat aipagarria da ezen, mankomunitateak guri eskueran ipinitako aitorpenei dagokienez, ez dela beti agertzen Ogasunaren zigilu/erregistroa;

hots, kasuko aitorpena aurkeztu dela frogatzen duena; horrenbestez, ez dakigu ea aitorpen horiek egiazki aurkeztuak diren ala ez.

• BEZ aitorpena mankomunitateko BEZ kontabilitate-erregistroekin kontrajartzea. Konparazio hau egiteko, analisia bi alditan bereizi beharra dago; izan ere, BEZari tratamendu ezberdina ematen zaio, 1998ko irailean Nafarroako toki entitateei buruzko kontabilitate-araudia aldatu zenetik.

#### 1993tik 1999ra bitarteko ekitaldiak

Kontabilitate-ekitaldia	Zergaldia	BEZ itzulketaren zenbatekoa (A)	Aitorpena, mankomunitatea	(B) BEZ kontabilizatua-mankomunitatea	Aldea (A) - (B)
1993	1992	5.225,91	Ez dago jasota	5.225,91	0,00
1994	1993	11.339,07	11.339,07	11.339,07	0,00
1995	<b>1994</b>	<b>31.593,20</b>	<b>18.578,13</b>	<b>18.578,13</b>	13.015,07
1996	<b>1995</b>	<b>20.869,05</b>	<b>13.687,91</b>	<b>13.687,91</b>	7.181,14
1997	<b>1996</b>	<b>16.468,63</b>	<b>11.039,06</b>	<b>11.039,06</b>	5.429,57
1998	1997	90.932,93	90.932,93	Ez dago jasota	-
1999	1998	54.866,06	54.866,06	54.866,06	0,00

Informazio eskuragarria dagoeneko ekitaldiei dagokienez, honakoa nabaritzen da:

- Kontabilitate-datuen eta mankomunitateak eskueran ipini dizkigun aitortpenen arteko koherentzia.

- 1994tik 1996ra bitarteko zerga-ekitaldiei dagokienez, ikusten da alde nabarmenak daudela, mankomunitatearen aldekoak, kontabilitateko datuen eta Ogasunaren egiazko itzulketen arteko konparazioan (Ogasunak berak dituen aitortpenen ondoriozko itzulketak, hain zuzen ere). Beraz, eta

gutxienez ere urte horiei dagokienez, deduzi liteke ezen Ogasunari egiazki aurkezturiko aitortpenak ez datozela bat Comptos Ganbera honi eskuratutakoekin.

#### 2000tik 2008ra bitarteko ekitaldiak

Ekitaldi horietan, BEZarekin aurrekontuz kanpo jokutzen da, jasandako BEZaren eta erasandako BEZaren erregistro osagarrien bitartez. Kuota garbia, bi horien arteko aldearen arabera finkatzen da. Ondoko taulan, datu horiek alderatzen dira Foru Ogasunak egiazki eginiko itzulketarekin.

Kontabilitate-ekitaldia	Zergaldia	Jasanarazitako BEZa	Jasandako BEZa	Kuota garbia (A)	BEZ itzulketaren zenbatekoa (B)	Aitortpena, mankomunitatea	Aldea (A)-(B)
2000	1999	28.622,04	25.899,07	-2.722,97	35.710,56	Ez dago jasota	-38.433,53
2001	2000	32.398,15	51.333,57	18.935,42	0,00	25.635,39	18.935,42
2002	2001	31.332,06	35.921,16	4.589,10	39.943,82	39.943,82	-35.354,72
2003	2002	34.513,21	42.249,93	7.736,72	31.565,57	31.565,57	-23.828,85
2004	2003	35.665,00	41.763,75	6.098,75	13.269,68	13.269,68	-7.170,93
2005	2004	44.292,59	37.842,95	-6.449,64	3.352,71	3.352,71	-9.802,35
2006	2005	42.407,84	42.070,62	-337,22	16.335,73	16.335,73	-16.672,95
2007	2006	37.231,37	46.895,90	9.664,53	26.160,95	26.160,95	-16.496,42
2008	2007	36.759,59	54.988,30	18.228,71	30.335,10	30.335,10	-12.106,39

Oharra: Kuotak zeinu negatiboa izateak esan nahi du Foru Ogasunari ordaindu beharreko kopuru garbi bat dela.

Ikusten denez, ezein ekitalditan ez dago bat-etortzerik kuotaren eta Ogasunak itzultitako zenbatekoaren artean. Azken zenbateko hori badator bat, ordea, mankomunitateak guri eskuraturiko aitortpenekin, 2000ko zergaldiari dagokiona izan ezik. Berrito ere zalantzan jartzen dugu Foru Ogasunari aurkezturiko aitortpenen egiazkotasuna.

- Kontabilitateko BEZari dagozkion kobrantza-eta ordainketa-jarioen jarraipena (2000-2008 ekitaldiak), Ogasunaren BEZ itzulketa kontuan hartu gabe.

– Egiaztatu da, Nafarroako Gobernuaren kontabilitatea dela medio, mankomunitatearen kontabilitatean BEZa dela-eta Foru Ogasunaren alde erregistraturiko ordainketa oro egiazki gauzatu dela.

– 2000 eta 2001eko ekitaldietan, kontabilitateko kuota garbia esplikatuz eta kontabilizatzen da hiru hilekoetako likidazioetatik eratorritako egiazko kobrantza eta ordainketen arabera, hala positiboak nola negatiboak.

– 2002, 2003, 2007 eta 2008ko kontabilitate-ekitaldiak. Nafarroako Gobernuarengandik BBVAko kontuan BEZa jaso ondoren, handik egun batzuetara, kontu horretatik transferentzia bat egin zen NAKeko kontura, "Nafarroako Gobernu BEZ" kontzeptu orokorraren pean, ekitaldiko kontabilitate BEZaren saldoaren zenbateko zehatzare-

kin, aurrekontuz kanpoko kasuko kontua ixte aldera. Bide horretatik Nafarroako Aurrezki Kutxara transferituriko zenbatekoa 59.137,38 eurokoa da, gehi banku-gastuak; transferitu gabeko zenbatekoaren gainerakoak BBVAren kontuan segitzen du.

– 2004ko kontabilitate-ekitaldia. BEZ itzulketa BBVAren sartzan da, baina kontabilitatean erregistratzen dira banku-kontu ofizialetik Foru Ogasunari egiazki eginiko ordainketak bakarrik. Dena den, ordainketa horiek ez dira nahikoak kuota justifikatzeko; beraz, litekeena da kontabilizatu gabeko betebeharrak existitzea.

– 2005eko kontabilitate-ekitaldia. Itzultitako BEZa BBVAren sartzan da, eta kontabilitateak ez du inolako ordainketa eta dirusarrerarik erregistratzen. Hala eta guztiz ere, balizko saldo zordun eta hartzekodunen konstantzia dago, eta horiek ez ziren izapidetu, ordaindu edo kobratu.

– 2006ko kontabilitate-ekitaldia. Ekitaldi honetan, Ogasuneko BEZa ere BBVAren sartzan da, baina kontabilitate-erregistrorik ez dagoenez bate-re, ezin dugu inolako kontrajarpenik egin.

13. eta 14. ondorioztapenen laburpen orokor gisa, honakoa baieztatu dezakegu:

- 1993tik 1998ra bitartean, mankomunitateak 427.968,97 euro jaso ditu guztira Foru Ogasunarengandik, itzultzeko BEZaren kontzeptuan.

- 2000ko ekitaldira arte, BEZ hori sartu izan da mankomunitatearen kontabilitatean erregistraturiko banku-kontu bakarrean. 2002ko ekitalditik aurrera, dirusarrera horiek ordaintzen dira, dela zuzenean dela Nafarroako Aurrezki Kutxaren transferentzia espresaren bitartez, BBVAko kontuan, zeina ez baitago aintzat hartua mankomunitatearen kontabilitatean.

- Oro har, Foru Ogasunak dauzkan BEZ aitopenak eta mankomunitateak ganbera honi eskuratu dizkionak bat datoz, salbu eta 1994tik 1996ra bitarteko eta 2000ko zergaldietan.

- Orokorrean esan daiteke Foru Ogasunari aurkezturiko aitopenen zenbatekoek ez daukatela euskarririk kontabilitate-informazioan.

- Kontabilitateko BEZari dagozkion kobrantza-eta ordainketa-jarioak mankomunitatean erregistratuta eta kontabilizatuta daude 2000tik 2003rako, 2007ko eta 2008ko ekitaldietarako. Gainerako hiru ekitaldiei dagokienez, ezinezkoa zaigu inolako ondorioztapenik adieraztea.

- Aurreko oharren emaitza gisa ondorioztatzen da inkoherentzia nabarmenak aurkitu direla kontabilitateko erregistroen eta BEZaren ondoriozko kopuruen artean; halaber, itzuli beharreko BEZaren zenbatekoan kontabilitatetik at eginiko balizko datu-moldatze baten zantzu sinesgarriak atzeman dira. Horrenbestez, hona gure gomendioa:

*Premiazkoa da Foru Ogasuneko zerbitzuek mankomunitatearen BEZ itzulketak ikuska eta berrazter ditzaten, haien egokitasuna egiaztatze aldera.*

**V. helburua.** Bi entitateen barne-kontrolerako eta kudeaketarako jardunbideak ebaluatzea.

#### **15. Mankomunitatearen barne-kontrolerako sistema.**

Mankomunitatearen eginkizuna da bera osatzen duten hiru udalerririk goi-presioiko urez hornitzea. Banaketa eta behe-presioaren kudeaketa zuzen-zuzenean dagokie udalerririk horiei, eta hor ez du mankomunitateak esku hartzen.

Horregatik, nahikoa zaio egitura txiki bat: hala langileei dagokienez –ur-instalazio eta –hodien mantentzeaz eta zainketaz arduratzen diren bi pertsona bakarrik dauzka– nola administrazio-guneei dagokienez. Bere sozietate-egoitza Cintruénigoko Udaletxean bertan kokaturik dago, eta udaletxe horretako langileak dira administrazio- eta kontabilitate-kudeaketaz nahiz instalazioen mantentzeaz arduratzen direnak.

Mankomunitateak, Nafarroan tamaina txikikoak diren gainerako toki entitateak bezalaxe, postu

berean biltzen ditu erakunde publiko orotan giltzarri diren idazkaritza eta kontu-hartzailatza eginkizunak; bestalde, lanpostu horrek lanaldi partziala esleituta dauka, eta zeregin horretan Cintruénigoko Udaleko idazkariak dihardu.

2007ko ekainera bitartean, mankomunitateko Lehendakari-postua Cintruénigoko alkateak berak bete du.

Egoera horrek halako nahaste bat eragin ahal izan die hirugarrenei, bai mankomunitatearen nor-tasun juridiko beregainari buruz, bai bere eta udalaren jardura finantzarioei buruz ere.

Bi entitateetako giltzarri-postuen kontzentrazio horri gehitzen badizkiogu detektatutako jardura ustez arauz kanpokoak, azalpen bat aurkitu ahalko diegu txosten honetan aipaturiko barne-kontrolerako eta kudeaketako ahulezia larriei. Azken finean, hori guztia suspergarri bat izan da, mankomunitateak toki entitate den aldetik bete beharrekoak dituen administrazio-prozedura arautuetatik kanpo dauden egoerak eta egintza ekonomiko eta finantzarioak ager daitezen.

*Horregatik, ganbera honek zera gomendatzen du, mankomunitateak, bere berezitasun, tamaina eta jardura-mailaren arabera, premiaz birdefinitzea bere antolaketa eta barne-kontrolerako sistema, bere eragiketarako behar bezala baimendu, erregistratu eta kontrolatzen direla bermatze aldera.*

#### **16. Udalaren barne-kontrolerako sistema.**

Udalaren barne-kontrolerako sistemak ahulezia bat erakutsi du obra-lantaldearen lan-gaztiguen izapidetze administratibo eta kontabilitateko ez egitearekin; horrexek sorrarazi zuen “eskudirukutxa”. Lan-gaztiguak udaleko kontu-hartzailatzari ez bidaltzeak eragotzi egin du bai haien barne- eta aurrekontu-kontrola bai haiek kontabilitatean erregistratzea.

Dena den, sistemak berak ahalmena izan du egoera detektatzeko eta hori konpontzeko neurri egokiak proposatzeko.

**VI. helburua.** Udalaren eta mankomunitatearen kontabilitatean egin beharreko zuzenketak proposatzea, detektaturiko eragiketarako behar bezala adierazita gera daitezen eta, beraz, haien benetako ondare-egoera ere bai.

#### **17. Kontabilitate-doitzeak.**

Bai mankomunitatearen bai udalaren kontabilitate ofizialek kanpokoak diren eta txosten honetan detektatu diren eragiketen multzoak bi entitate horiek behartuko lituzke beren kontabilitatea doitzera –bai aurrekontuko, bai orokorra–, beren

egoera ekonomikoa eta ondarekoa leialki isla ditzan.

Alabaina, eta kontuan harturik aurrekontu-gastu eta –dirusarreraren eragiketak datozela jadanik itxitako ekitaldietatik, bai eta haien zenbatekoa garrantzitsua bada ere beste ikuspegi batzuetatik, ez dela hainbestekoa bi entitate horien aurrekontu-en gutzitzaekin alderatuta, eta halaber, doitze horrek leharkeen administrazio-izapidetzea oso luze eta konplexua litzatekeela, ganbera honen iritzia da ez dela egin behar jadanik onetsirikoak eta 2008 baino lehenagokoak diren aurrekontu-likidazioen doitzea. Ez da ahaztu behar ezen, eragiketamultzo handi bati dagokionez, zintzilik dagoela ebazpen bat, bere garaian jurisdikzio-organo eskudunek emanen dutena.

Nolanahi ere, gure ustez egin beharrekoa litzateke udaleko diruzaintza eta kontabilitate osagarria doitzea, “eskudiru-kutxako” amaierako saldoa, 18.150 eurokoa, aintzat hartzeko, nahiz eta saldo erabilezinaren kontsiderazioarekin, epaileek ebazpena ematen ez duten bitartean. Era berean, bidezkoa litzateke emaitza-kontua doitzea prozedura horren bitartez eginiko eragiketen multzoa bezainbesteko kopuruan.

BBVAko kontuaren mugimenduei dagokienez, ohartarazi behar dugu ezen, kontu horretan izandako dirusarreraren behin betiko zenbatekoa zehazten ez den bitartean, eta irteeren benetako izaera argitzen ez den bitartean, ez dela bidezkoa, une honetan, mankomunitatearen kontabilitatea doitzea. Dena den, komeni litzateke, behin-behinekoz eta kontabilitatetik at, bertako mugimendu guztiak erregistratzea, gauzak guztiz argitu bitartean. Idazkari eta kontu-hartzaileak eginiko “itzulketari” dagokionez, mankomunitatearen diruzaintzan sartu beharko litzateke, baina “saldo ez erabilgarri” kontsideraziopean.

Laburpen edo amaierako ondorioztapen gisa, txosten honetan adierazitako egintzen multzoak erakusten du entitate publiko guztiei nahitaez bete beharrekoak zaizkien aurrekontu-, kontabilitate- eta kudeaketa oneko printzipio eta arauen ageriko urraketa izan dela, eta horrek ekarri du indarreko araudian ezarritakoez bestelako prozedurak aplikatzea eta, bide horretatik, funts publikoen okerreko kudeaketa egitea.

Ganbera honen aburuz, egintza horiei ustezko kontabilitate-erantzukizuneko zantzuak antzematen zaizkie. Erantzukizun hori daukate, ardurapean funts publikoen erabilera edo zaintza izanik, legearen aurkako egite edo ez-egite batengatik funts publiko horien kaltea edo gutxitzea eragiten dutenak.

Printzipioz, erantzukizun-zantzu horiek bilduta leudeke mankomunitatearen eta udalaren funts batzuetan –BBVAko kontua eta “eskudiru-kutxa” kontua, hurrenez hurren–, zeinen aplikazioa, prozedura orotik at eginga, justifikatu gabe baitago, funts horien egiazko helmuga ezezaguna izateagatik.

Indarreko legediaren arabera, Kontuen Auzitegiari dagokio kontabilitate-erantzukizun hori zedarriritu, kuantifikatu eta ebaztea. Horri buruz, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko 13/1982 Lege Organikoko 18.4 artikulua honakoa ezartzen du: “Bere eginkizun fiskalizatzailan aritzean, Comptos Ganbera kontabilitate aldetik inon erantzukizun zantzurik badela ohartzuz gero, behar diren jarduketak Kontu Auzitegiaren esku utziko ditu”. Betebehar hori jasota agertzen da, halaber, Nafarroako Comptos Ganberari buruzko 19/1984 Foru Legeko 3.2 artikuluan.

Bereganatu ahal izan diren gainerako erantzukizunei dagokienez –administratiboa, zigor-arlokoa eta zerga-arlokoa, nagusiki–, kasuko jurisdikzio- eta administrazio-organoei dagokie ebazpena ematea; organo horiei ere helaraziko die ganbera honek txosten hau.

Txosten hau eman da araudi indardunak ezarritako izapideak bete ondoren.

Iruñean, 2009ko martxoaren 26an.

Lehendakaria: Luis Muñoz Garde

### **BEHIN-BEHINEKO TXOSTENARI CASCANTE, CINTRUÉNIGO ETA FITEROKO UR-MANKOMUNITATEKO LEHENDAKARIAK AURKEZTUTAKO ALEGAZIOAK**

Juan José Sesma Fernández, Cascante, Cintruénigo eta Fiteroko mankomunitateko lehendakariak, honakoa adierazten du:

1. Comptos Ganberarengandik martxoaren 16an jaso duela Cintruénigoko Udalaren eta mankomunitate horren arteko harreman ekonomikoa eta finantzarioei buruzko behin-behineko fiskalizazio-txostena.

2. Martxoaren 18an, mankomunitatea osatzen duten hiru udalerrietako zenbait kide bildu ziren eta honako alegazio hauek adostu zituzten:

4. orrialdean esaten da: “Behin-behineko txostena prestaketa-fasean zegoenean, mankomunitateko lehendakariak jakinarazi digu ezen, 2009ko martxoaren 12an, erakunde horretako idazkari eta kontu-hartzaileak mankomunitate horren bankukontuan 157.934,37 euroko kopurua sartu duela, ‘itzulketa’ kontzeptuan”.

Gure iritziz, argitu beharko litzateke, helarazitako dirusarrera-frogagirian agertzen den bezalaxe, dirusarrera-agindua José María González Sesmak emana dela, “José María González Sesma reintegro cantidad” testuarekin eta pertsonalki bere izenean, kaltea ordaintze aldera, 2009ko martxoaren 13an mankomunitateko kideoi jakinarazi zigunez. Alegia, dirusarrera hori pertsonalki bere izenean egin du, eta ez mankomunitateko idazkari gisa, txostenean esaten den bezala.

10-11 orrialdeetan adierazten da detektatu zela bazegoela BBVAko kontu bat, mankomunitatearen izenean, ordezkari bakarra zuena: mankomunitateko idazkari eta kontu-hartzailea.

Gure ustez, txosten horretan Comptos Ganberak argitu beharko luke, atal horretan edo egoki deritzon beste batean, mankomunitatea bezalako entitate publiko batek, kontu bat ireki ahal izateko, mankomunitateko batzarraren edo lehendakariaren baimena behar duela nahitaez; era berean, kontu horretako diruaz xedatu ahal izateko, gutxienez ere bi sinaduraren bidezko baimena behar du (mankomunitate honek Nafarroako Aurrezki Kutxan daukan kontuak idazkariaren eta lehendakariaren sinadurak beharrezko ditu). Halaber ohartarazi beharra dago ezen, BBVAko kontua ireki zen egunean, mankomunitatea arautzen zutela Nafarroako Foru Diputazioak 1936ko martxoaren 10eko erabakian onetsitako oinarriek, 2004ko urriaren 5ean onetsitako eta 2005eko 11. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratutako estatutuen arabera. Horren kopia erantsi dugu. Laburbilduz, kontua litzateke txostenean zehaztea ezen, BBVAko kontua ireki ahal izateko, balio duena ez dela idazkariaren sinadura bakarrik, eta beste hainbeste esan beharra dago diruaz xedatzeari dagokionez.

16. orrialdean esaten du: “Aurreko mugapen horiek eratorriak dira, batez ere, mankomunitatearen 2001eko ekitaldira bitarteko informazio ekonomiko eta finantzarioa erazi izatetik. Alabaina, ez da inon agertzen nork baimendu/agindu zuen horrela jokatzeko, ez eta zer justifikazioarekin, edo zein egunetan erazi zen informazioa”. Mankomu-

nitate honek ez dauka dokumentazio hori erazi izanaren konstantziarik. Gure ustez, erazpena egin izanaren berri ematen duen txostenean zehaztu beharko litzateke nola iritsi diren ondorioztapen horretara, eta, idazkariaren ahozko adierazpenengatik bada, hori ere esan egin behar da. Era berean, zehaztu behar da nork duen erazketa egiteko boterea, zer baimenekin, eta zenbat denboraz mantendu beharrekoak diren adierazitako dokumentuak; orobat, erregistratuta utzi behar da erazketa, justifikazioa, zer arau aplikatu den, eta abar.

Adierazitakoa helarazten dizuet, aintzat har dezazuen.

Cintruénigo, 2009ko martxoaren 23a.

Cascanteko ur-mankomunitateko lehendakaria:  
Juan José Sesma Fernández

**COMPTOS GANBERAREN ERANTZUNA, CASCANTE, CINTRUÉNIGO ETA FITEROKO UR-MANKOMUNITATEKO LEHENDAKARIAK AURKEZTUTAKO ALEGAZIOEI EMANA**

Cascante, Cintruénigo eta Fiteroko ur-mankomunitateko lehendakariak aurkeztutako alegazioei dagokienez, ganbera honek ondokoa zehaztu nahi du:

- BBVAko konturako baimena. Txosteneko 8. ondorioztapenean espresuki adierazten da kontu hori ez zegoela baimenduta, ez eta bera ireki eta erabiltzea justifikatuta ere.

- IV.2. atalean adierazten da, dokumentazio-erazketari buruz, ez dela inon agertzen nork baimendu/agindu zuen horrela jokatzeko, ez eta zer justifikazioarekin, edo zein egunetan erazi zen informazioa. Gai honi buruzko araudiari dagokionez, gaur egun Artxiboei eta Dokumentuei buruzko apirilaren 4ko 12/2007 Foru Legea da aplikatzen.

Iruñean, 2009ko martxoaren 26an

Lehendakaria: Luis Muñoz Garde



